

uk

247. zenbakia / 2014ko otsailaren 25a



URTEAN 20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki
Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri
Urte osoan eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
Urte osoan argazki zahar eta barriak
Urte osoan zure proiektuak lau haizetara
Urtean 20 euro

uk  **Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtean 20 euro.**

www.ukaldizkaria.biz neuk_ere_gura_dot **UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz**

RENAULT MÉGANE BERRIA

KOPILOTURIK ONENA

4.000€ KO EKIPAMENDUA BARRNE

- ESKUZKO KLIMATIZAZIOA
- CDdun IRRATIA, MP3a, USBa eta BLUETOOTH®
- ESPa, ABIADURAREN ERREGULADOREA ETA MUGATZAILEA
- BARRUKO ORDENAGAILUA ETA ASKOZ GEHIAGO...

11.700€* -TIK HASITA
 ENERGY TCe 115CV STOP&START

Argazkiko modeloa: Renault Mégane GT-Style Energy TCe 115 S&S, PM berria (milla urteko): 14.165€.

ESPAINIAN EGINA **DRIVE THE CHANGE**

Renault Mégane Berlina gama: kontsumo mistoa (l/100 km), 3,5etik 7,5era bitartekoa. CO2-aren isuria (g/km), 90etik 174ra bitartekoa.

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com
LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberioa Iturburu, Julen Nafarrate, Iker Rincon, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Armando Llamas, K. Olate, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Laurita Siles
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTZATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

Bizkaiko Foru Aklundia
 Diputazio Foral de Bizkaia
 Kultura Saila
 Departamento de Cultura

Non zer

4. PLAZA. Uribe Kostako Gure Esku Dago / Amaia Arriaga
5. IRUDIA. Biktimizeei omenaldia Getxon.
6. FACEGUK. Zer deritzozu Urdulizen jartzeari Uribe Kostako ospitalea?
7. LEHEN ETA ORAIN. Sopela.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Virginia Diaz.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Tinta-bideetan.
28. ARGAZKIA. Gorlizeko inauteriak, 1956.
30. BERBETAN. Uxue Alberdi Estibaritz.
34. FOTOGRAFIA. Eduardo Camino.
40. SAKONEAN. Sexu-askapenerako gazte-mugimendua.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Mendi-Tourreko filmak Leioan.
43. MUSIKA. Gemikako Lekuek jaialdia.
44. LIBURUAK. Aratustek Bizkaian lana.
45. KIROLAK. Mikel Uribe.
46. ELKARRIZKETA. Alex Idiondo cavagilea.
47. JENTILKOBA. Zezengorri.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Izokina oinarri.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Laurita Siles.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Dantzariak Romoko jaietan, 1966.
54. AITORMENAK. David Seco.

Azala: Eduardo Camino


www.ukaldizkaria.biz




30 Uxue Alberdi

Berbetan

Elgoibarko idazle, bertsolari eta kazetariak literaturaz eta bertsolari-tzaz jardun du, talaia feministatik.



11 Virginia Diaz



46 Alex Idiondo

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat

Kontu zenbakia (20 digito)

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa, 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

Leihatila

> Amaia Arriaga

Cerrato

Astrabuduko giza-paisaian aldaketa esanguratsua nabaritu dut otsail honetan: duela 34 urte bertaratu nintzenetik oraintxe arte neure ingurunetik gertu ibili den auzokide baten hutsunea. Ez dut ikusten ez etxepeko banketxean kartelak jartzen, ez Herriko tabernan tragoak hartzen, ez batzarretan berba egiten.

Gure 'eztabaidatzaile' nekazina isildu egin da, eta arrazoa arrazoiari gehituta batzarrak infinitura arte luzatzeko tema hamaika aldiz aurpegiratu diodan lagunaren isiltasuna astun zait.

Herrigintzan ezagutu dugu beti, 'borroka da bide bakarra' leloa egunero gaurkotzen: ambulatorioa, plaza, gasa, Udala, langabezia, presoak... Auzoa, herria, Euskal Herria eta munduko langileria izan ditu bere kezken ardatz. Gorriak bihotza eta Iparra. Astrabuduko Karl Marx kaleari izen hori emateko proposamena bere eskutik iritsi zitzaion eratu berri zen Erandioko Udalari, duela hogeita hamar bat urte.

Josu, estimatu zaitut eta nire memoriaren hondartzatxoan tokia izango duzu.

gu geu**Goza eta defenda ditzagun**

Egunerokotasuneko kontuak dituzue orriotan. Gertatuko batzuk, eta datozenen barri ere bai. Egunerokotasunetik ihes egiteko, eguneroko hainbat inausteko sasoia da; inauteriak aurrez aurre! Gogoko ez duguna mozteko eta kaleratzeko aukera, mozorrotzeko parada, barruko emozioak gorpuztekoa, haragitzeko, azaleratzeko... Aratustek! Kontrako aldeak hurbilen dauden garaia...

Armairura begiratu dugu. Zer jantzi ez dugu erabaki. Baina argi dugu betaurreko moreak 365 egunetan jarriko ditugula; eta kristala lausotzen edo lainotzen ahaleginduko balira, prest dugu horientzat mukizapia eta guretzat musuzapia; gu geu garelako geure buruaren eta gorpuzaren jabe. Goza eta defenda ditzagun bada!

UK-ko lan-taldea**Iritzia**

Zelai Nikolas, Uribe Kostako Gure Esku Dago herri-batzordeen izenean:

Gure Esku Dago: erabakitze eskubidearen haize berriak

Uribe Kostara heldu zaigu erabakitze eskubidearen alde Idiazabalen (Gipuzkoa) sortutako haize ufada. Goxo eta alai heldu ere.

Uribe Kostan (Lemoiz, Gorliz, Plentzia, Barrika, Sopela, Berango, Getxo, Itzubaltzeta-Erromo, Leioa eta Erandio) herri-batzordeak sortu dira Gure Esku Dago ekimen herritarrak Ficoban (Irun) ekainaren 8an botatutako erronkari aurre egiteko asmoz: BAIETZ, 2014ko ekainaren 8an, 50.000 herritar baino gehiago eskutik helduta

Durango eta Iruñea giza-kate baten bidez lotu Euskal Herriaren erabakitze eskubidearen alde!

Aieteko Adierazpenaren ekitaldian (2011) Power jaunak adierazi zuenez, Euskal Auzia Europan konpontzeke geratzen den azken gatazka da eta bada garaia hura ere bideratzeko. Bada, 2007tik Gipuzkoako Goierriko herri txiki bateko herritarrak irakaspén polita zabaltzen ari dira Euskal Herri osora: Euskal Herriaren etorkizuna gure esku dago, herritarren esku, eta gure artean elkarguneak bilatuz eta gure desberdintasunak kudeatzen ikasiz, urrats sendoak eman ahal izango ditugu harresirik gabeko Euskal Herri librea eraikitze.

Nola ordea? Bada, herriz herri, auzoz auzo, eskuz esku, euskal herritarrok batzen gaituzten bizikidetzarako gogoak eta ilusioak elkarri pa-

satuz. Hau da, auzolanean lan eginez eta bidean lan egiten gozatuz. Euskal herritarren arteko elkargune garrantzitsua da erabakitze eskubidea; izan ere, tresna demokratiko horren bidez baldintza egokiak sortzen dira norberak bere egitasmoa defendatu eta bere alde erabaki ahal izateko, inolako mendetasunik gabe. Zer dago eta demokratikoagorik norberak bere etorkizunaz erabakitzea baino!!

Abendu bitartean ekimena aurkeztea zen Gure Esku Dago herri-ekimenaren helburu nagusia eta herri-batzorde anitzak eta zabalak sortzea Euskal Herriko ahalik eta txoko gehienetan. Uribe Kostan helburua aise lortuta, sortu dira herri-batzorde anitzak eta zabalak eta orain arte antolatutako ekitaldiak jendetsuak izateaz gain, hurbildu direnak oso gustura atera dira (Erandio, Leioa, Getxo, Berango, Sopela, Barrika, Plentzia, Gorliz, Itzubaltzeta-Getxo...). Baina jende kopuruaren gainera garrantzitsua da herritarren artean sortzen gabiltzan konfiantza eta ilusioa. Bi osagai horiek baitira auzolanean gure herriaren etorkizunaren jabe egiten lagunduko digutenak.

Orain bigarren fasean gaudelarik, herrietan eta auzoetan ekimen ugari martxan jarri nahi ditugu erabakitze eskubidea gizarteratzeko. Eskubide hori zer den azaltzeko eta orain arte gure haize-ufadak harrapatu ez duena ere gozo-gozo laztantzeko eta gureganatzeko. Hartara, Uribe Kostako GED astea martxoaren 8tik (Emakumeen Eguna) martxoaren 16ra bitartean egingo dugu eta aste horretan hainbat furgoneta gure auzo eta kaleetan ibiliko dira gure ekimenaren inguruan argibidea ematen, gure abestia xuxurlatzen, gure pegatinak banatzen eta garrantzitsuena: giza-katean egokitu zaigun 34 km-ko (Antzuola herriari dagokiona) fitxak saltzen. 400 pertsona behar ditugu gutxienez Getxori dagokion kilometroa osatzeko. Aste horri hasiera emateko Faduran Getxo-Ordizia Errugbi partidaz gozatu ahal izango dugu. Eta Uribe Kostako GURE ESKU DAGO ASTEKO ekitaldien egitaraua prest dugu...

Gure Esku Dago
(Uribe Kostako taldeak)**[irudia]**

GETXO, OTSAILAREN 7AN

Errespetua eta oroimena / Gerra Zibilaren, lehenagoko gatazka zibilen eta frankismoaren biktimak gogoratzeko omenaldia egin zuen Getxoko Udalak otsailaren 7an; alderdi guztiek parte hartu zuten, biktimen senideakaz batera. Ekitaldia Galeako pasealekuan izan zen, *Oroimenaren liburu*a deritzon eskulturaren alboan. Udalak esan zuenez, biktimei aitortza eta errespetua adierazteko omenaldia izan zen, *“adiskidetasun eta elkartasun oinarrituta”*. Ekitaldi xumea izan zen: *Agur jaunak* abestia jo zuten txistulariek, eta minutu bateko isilunea eta lore-eskaintza egin zituzten. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugu!

Zer iruditzen zaizu Urdulizen jartzea Uribe Kostako ospitalea?



Plentzia

Mariñe Jauregi

> biologoa

Larrabasterran egin behar zuten, Uribe Kosta erdialdean dagoelako. Egin duten tokian haitzak hondatu dituzte. Logikoki ondo iruditzen zait hemen inguruan ospitale bat egotea, baina aukeratu duten lekua ez da egokia; Larrabasterran autobia dute ondoan eta orokorrean konektatuago dago.



Urduliz

Esther Martinez

> etxeoandrea

Uribe Kostan ospitale bat egotearen alde nago, nahiz eta Urdulizen izan. Hala ere, aukeratu duten lekua ez da egokia. Kanpoaldean egingo nuke nik. Trenbidera heldu baino lehen lursail batzuk daude, eta bertan egin behar zuten, Mecaner enpresaren ondoan.



Urduliz

Nati Dopico

> itxas-ingeniari teknikoa

Mecanica De La Peña dagoen lekuan egin behar zuten. Aukeratu duten lekua herri erdian dago, eta badaude beste leku batzuk bananduago daudenak. Ez dakit onuragarria edo kaltegarria izango den herriarentzat. Luzera begira onuragarria izan liteke, baina egin duten lekua ez da egokia.



Urduliz

Itziar Ansoleaga

> etxeoandrea

Santa Marinako haitzak herriko lekuri esanguratsuena da, eta horiek hondatu izana ez zait ondo iruditzen. Mecanica De La Peña ondoan egin behar zuten, edo beste lekuren batean, baina ez hor. Jende askok Urduliz aukeratzen du hemengo lasaitasunagatik, baina luzera begira hori galduko dugu.



Urduliz

Mari Cruz Barrera

> etxeoandrea

Nik uste dut positiboa dela. Lanpostuak sortuko ditu eta auzokideok jada ez dugu Gurutzetaraino joan behar izango. Hala ere, ea sortutako lanpostu horietarako herriko jendea hartzen duten.



Urduliz

Mari Angeles Sesar

> etxeoandrea

Nik uste dut nahiko positiboa izango dela herriarentzat. Herrian mugimendu gehiago egotea ekarriko du eta onuragarria izango da inguruko saltokientzat. Gainera, modu horretan, auzokideok ez dugu Gurutzetaraino edo Basurtaraino joan behar izango gehiago.



SOPELAKO UDALAK UTZITAKO ARGAZKIA

[lehen]



ASER MENTAKA

[orain]

Iraganez doa denbora* beti / SOPELA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > kontenedoreak



Algorta, 2014ko urtarrila

Testua: **Unai Angulo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak

Irudi hauxe bihurtu zaigu
Arrunta eta ohikoa
ezinbestean arakatzeari
kontenedoretakoa
kartoi kutxa bat, hiru pijama
edo Brik-an plastikoa
kobrea eta txatarra bardin
askotan ez da nahikoa
normala balitz hartzen duguna
berez da dramatikoa

Tapa zabaldu eta kiratsa
dator barrutik kanpora
burua sartu eta esku
luzatu behar hondora
nahiz (e)ta gutxi egon barruan
dagona hartzea hoba
zerbait salduta zerbait erosi
eramateko ahora
gure herrian gertatzen dela
beharko dugu gogora

Kontenedorez kontenedore
egun bat eta hurrena
ogibidean bihurtu leike
derrigorrez hasten dena
askotan bota egiten dela
besteek behar dutena
gizarte honen oreka eza
dugu lotsagarriena
erdia ondo bizi izateko
beste erdia kondena

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

Inprimatu zure posterra
airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin
Pilo bat daukazu aukeratzeko

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

www.bizkaiadesdeaire.com

9,32€
-tik hasita
BEZ barne

Sar zaitetz zure eskaera egiteko



Lana ez dago salgai, Etxepare gunean lor daiteke

antologia > Ahozko Euskal Literatura

Xabi Payak (Getxo, 1982) idatzi eta ondu duen *Ahozko Euskal Literaturaren Antologia* liburua aurkeztu zuen otsail erdialdean Etxepare Euskal Institutuak. Hiru hizkuntzatan dagoen lana Euskal Antologiak Saileko hirugarrena da. Aurkezpenean bertsolari, itzultzaile eta irakasle algarriak adierazi zuenez, jaso gura izan dute “haizeak eraman ez zuena”. Azaldu zuenez, “ahozko literaturaren ikuspegi panoramikoa

eta poliedrikoa lantzen” ahalegindu da, eta horretarako zortzi genero ardatz hartuta: bertsolaritza, koplak, herri-antzerkia, genero epiko-lirikoa, heziketa-generoa, egunerokoak, genero errituala eta aplikatuak; halere, “funtzionalki oso garrantzitsuak direlako, txikitzat jotako generoei ere (zirtoa, txistea e.a.)” egin die lekua. Etorkizuneko ikerketen oinarritzat jo dute lana. ○

Info+: www.etxepare.net

ikuskizuna > maskaradak Zuberoan

Aratuste sasoian, urtero legez, lau hilabetez luzatuko den eskaintzari ekin diote dagoeneko Zalgize eta Iruriko gazteek: Zuberoako maskaradaren egitaraua abian da. Dantza, musika, kantu, prediku eta antzezpena batzen dituen komedia kutsuko ikuskizuna zuberotarra, inauterietako erritua, ezagutzeko zein gozatzeko hurrengo zitak ondorengo hauek: martxoaren 2an Altzürükün, martxoaren 9an Eski-

lan, martxoaren 16an Idauze-Mendin, martxoaren 23ko zehazteko dute Arrokiagan, martxoaren 30ean Alozen, apirilaren 6an Hokin, apirilaren 13an Altzain, apirilaren 20an Barkoxen, apirilaren 27an Ur-dinarben, maiatzaren 4an Gamare-Zihigan eta, amaitzeko, maiatzaren 10ean edo 11n Irurin. Gorriak eta beltzak, kerestuak, xorrotzak, arteko alderatzak... ○

Info+: www.eke.org / dantzan.com

Maiatz hasiera arte Zuberoako hainbat herrietan

Info+: www.gureeskudago.net

ekimena > Gure Esku Dago Uribe Kostan

Erabakitze-eskubidearen aldeko ekimenak eskualdean ia udalerrri guztietan herri-batzordeak aurkeztu ditu daborduko; aurrerantzean zenbait ekitaldi antolatuko dituzte, besteak beste: Uribe Kostako Gure Esku Dago (GED) Astea. Martxoaren 8an hasi eta 16ra bitartean, esaterako berbaldiak egongo dira: Leioan martxoaren 11n; Erandion, martxoaren 12an; Sopelan martxoaren 13an; eta Berangon mar-

txoaren 14an; horrez gainera martxoaren 16rako hauxe iragarri dute: Faduraiko frontoien atarian ipini dute hitzordua 18:00etan, 18:30ean kalejiran errugbi-zelairaino joan eta belodromoa kanpotik inguratuko dute eta giza-katea osatu (400 lagun behar dituzte, gutxienez) eta erdian eskuz esku mosaikoa eraikiko dugu; 19:30ean Algortara kalejiran igoko dute Gure Esku Dago poteoa egitera... ○

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa


...harria ...lehengo garaiak... ...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

(amama biloben erlazioak aztergai)
EUSKAL IRUDITEGI ALTERNATIBO BATI EKARPENAK

81 amama

Martxoaren 12an
19:00etan
Areetako Elkartegian
Ogoño kalea 1



Getxo
bizi ezazu

ARTERIAK

ZUZENDARIA IZARO GLEZ IEREGI KAMARAK IBON AZPIROZ
ANE OTALORA IDOIA MAULEON NEREA URRUTIA DEIENE GARCIA
ANIMAZIOAK ANE OTALORA IBON AZPIROZ



"2016. urteko Joko Olinpikoetarako prestatzen hasi naiz"

Virginia Diaz Rivas > Getxoko arrauna, sasoian

Arraun-tradizio handiko herri batean jaio zen orain 22 urte Virginia Diaz arraunlaria. Ez, ez zen Orion, Sestaon edo Pasaian jaio, Astilleron baizik, Kantabrian. Patua, beraz, ia-ia erabakita zuen: "Han denok hartzen dugu arrauna behin edo behin". Berak 14 urte gaz hartu zuen: "Arraun-taldekoak eskoletara joaten dira ikasleei probak egiten. Niri esan zidaten gaitasuna nuela, eta konbentzitu ninduten". Ordura arte, Diaz beste kirol batzuetan aritu zen: "Igeriketa, saskibaloia... denetarik probatu nuen, eta kirol guztiak gustatzen zitzaizkidan". Astillero-gaz sei urte egon ostean, orain urte bi Getxoko Raspas taldera joan zen: "Nire mutila Raspas taldeko entrenatzaile izendatu zuten eta beragaz etorri nintzen. Getxon poz-pozik bizi naiz". Urte hauetan guztietan, 11 urre, bost zilar eta sei brontze eskuratu ditu txapelketetan. Hori dela-eta, Getxoko Udalak 'Saso sasoian' herriko kirolari onenaren saria eman barri dio: "Ilusio handia egin dit". Orain, erronka potologoak ditu buruan: "2016ko Joko Olinpikoetarako prestatzen hasi naiz". Helburu horregaz, egunero entrenatzen du, goizez eta arratsaldez; daborduko ez du giharretako minik izango! "Bai zera! Makina aldatu eta berehala urtetan dira!". Bitartean, arraunlariak erizaintza ikastekatuz jarraitzen du. "Arraunetik bizitzea gaur egun ezinezkoa da, eta are gutxiago emakumea bazara".

Argazkia: **Hodei Torres** / Testua: **Julen Nafarrate**

Aratusteak arima alaitzeko!

Romon martxoaren 1ean ospatuko dituzte inauteriak eta mozorrotzeko gaitzat aukeratu dute euskal mitologia; Algortan, barriz, martxoaren 7tik 9ra izango dira



Neguari agur esateko modu bikaina izango dira aurten inauteriak

Aste akabu bitan izango dira inauteriak gurean eta ekitaldi andana prestatu dute Romoko zein Algortako jai-batzordeek. Romon martxoaren 1ean ospatuko dituzte, zapatuan, eta Algortan hurrengo aste akabuan, hilaren 7tik 9ra.

Ohi legez, Santa Eugenia plazak hartuko ditu ekitaldi gehienak, baina herriko kaleetan ere nagusituko da inauteri-giroa. Berbarako, umeentzako jarduerak Santa Eugenia garatuko dira, goiz eta arrastiz. Aurten euskal mitologiaren gaia aukeratu dute mozorrotarako.

Gauean, barriz, helduak izango dira auzoko protagonistak, taberneko mozorrotzako gogoratu ahalik eta taberna gehienetatik pasatu behar duzula, puntu asko lortu gura baduzu. Sariak emongo dituzte, bai

koadrilentzat, bai norbanakoentzat. Koadrilentzat 900, 600 eta 400 euroko sari bana emongo dute, norbanakoentzat 400, 300 eta 200 euroko sari bana, irabazleek gura bezala gastatzeko.

«Utopian-eskolak desfilea prestatu du Algortan, martxoaren 8ko eguerdirako»

Algortan, bestalde, hilaren 7tik 9ra izango dira ekitaldi nagusiak, baina aurreko aste akabuan hasiko dira giroa bertzen. Otsailaren 28an, barikuan, kalejira-entsegua egingo dute; zapatuan erraldoiak eta buruhandiak ibiliko dira, eta domekan euskal inauteri-kalejira egingo dute. Jantzi maskara eta zoaz kalera! o

Egitaraua

ROMON:

- **Martxoaren 1ean, zapatuan:**
 - Umeentzako jolasak eta tailerrak (Santa Eugenia plaza; 12:00-14:30)
 - Umeen mozorro-lehiaketa (Santa Eugenia; 13:30)
 - Txokolate-jana (Santa Eugenia; 18:00)
 - Kalejira (Santa Eugenia plazatik abiatuta; 18:30-20:00)
 - Umeentzako ikuskizuna (Santa Eugenia; 20:00)
 - Erromeria (Santa Eugenia; 22:00)

ALGORTAN:

- **Otsailaren 28an, barikuan:**
 - Inauterietako kalejira-entsegua (San Nikolas/Zabala; 18:00)
- **Martxoaren 1ean, zapatuan:**
 - Erraldoiak eta buruhandiak (12:30)
- **Martxoaren 2an, domekan:**
 - Euskal inauteri-kalejira (12:30)
- **Martxoaren 7an, barikuan:**
 - Umeentzako jolasak, txokolate-jana eta dantzaldia (Telletxe; 17:30-19:00-20:00)
 - Fanfarrea (herrian; 20:00)
- **Martxoaren 8an, zapatuan:**
 - Koadrilen mozorro-kalejira (Telletxetik; 13:00)
 - Desfilea: 2-Utopian (San Nikolasetik; 14:00)
 - Bazkaria (Telletxe; 15:30)
 - Ginkana-poteoa (tabernetan; 18:00)
 - Elektro-txaranga (herrian; 18:00-21:00)
 - Martxoak 8: manifestazioa (Telletxetik San Nikolaseran; 20:00)
 - Erromeria: 3 gabe 2 (Telletxe; 22:00)
 - Estropadak: Getxoko Bandera (18:00)
- **Martxoaren 9an, domekan:**
 - Puzgarriak (Telletxe; 12:00)
 - Bertso-saioa (Telletxe; 18:00)
 - Txistorra-jana eta mozorro-lehiaketaren sari-banaketa (Telletxe; 19:00)

Protesta Osoko Bilkurara

eroango dute romotarrek, kultur etxea dela-eta



Otsailaren 16an mobilizazioa egin zuten kultur etxearen proiektuaren kontra

Ehunka lagunek protesta egin zuten Romoko kultur etxearen proiektuaren kontra otsailaren 16an, Romoko auzokide-elkarteak deituta. Mobilizazio eta ekimenetan lehena izan zen. Hurrengo urratsa gaia otsaileko Osoko Bilkurara eratea izango da eta, gainera, romotarrei bertaratzeko dei egingo diete.

Auzokideek proiektua berrikusteko eta aldatzeko eskatu diote Udalarri, behin eta barriro. Diotenez, ez daude kultur etxea eraikitzearen kontra, baina aurreikusitako proiektuari *“burugabeko handikeria”* eta garestiegi irizten diote.

Horregatik, egungo proiektuari azken solairu biak kentzeko eskatu dute: *“Nahikoa da gaurko eta etorkizuneko bi auzo hauetako herritarren beharrei aurre egiteko”*. Izan ere, *“nagusien etxea eta udal-eus-*

kaltegia gaur egun dauden lekuan mantentzen badira, solairu horiek ez dira behar; hori bai, aipatutako eraikinei behar diren konponketak eginda”. Gainera, *corten altzairua* materialagaz egindako kanpoko estalkirik ez ipintzeko eskatu dute, euren aburuz, *“horrek obra garestitzeko baino ez”* duelako balio.

Bestalde, lehen zegoen eraikinaren mendebaldeko fatxadaren lerroa mantentzeko eskatu dute, baita Santa Eugenia plazako etxebizitza-jabeak azkordioa egiteko ere, Aurrezki Kutxa eta Ezequiel Agirre kaleak oinezkoentzat ipintzeko, eta plaza zaharbarritzeko. Azkenik, Udarak kultur etxearen erabilera adostea gura dute, bai herritarrek, bai auzoko elkarre guztiak. Eraikina 2016ko udagoienera zabaltzea aurreikusten da. o

LAGUNTZAK GIZARTE ARLOKO ELKARTEEI

Azken egunak dituzte gizarte arloko elkarteek Udalarri diru-laguntza eskatzeko: otsailaren 28a da azken eguna. Zehazki, udalerriko biztanleei zuzendutako jarduerak egiten dituzten erakunde eta elkarteentzako laguntzak dira eta, aurten, 219.650 euro emongo dituzte. Getxon erroldatutako irabazi asmorik bako erakundeek eska dezakete laguntza. Eskaerak aurkeztu behar dira Herritarren Arretarako Bulegoetan edo Gizarte Zerbitzuen egoitzan (Algortako Urgull, z/g).

Info+: www.getxo.net

PATINAJE ARTISTIKOA MARTXOAREN 8AN

Patinaje Artistikoko I. Getxo Hiria Nazioarteko Txapelketa jokatu da Fadura kiroldegian martxoaren 8an, zapatuan. Getxo Kirolaren 2014ko Europako Hiria delako ekimenaren lehen jardueretako bat izango da eta asmoa da *“jarduera fisikoa sustatzea”*. Show Getxo Patinaje Klubak antolatuko du txapelketa eta bost herrialdetako 200 patinatzailek parte hartuko dute. Gogoratzea boxeo-gaua eta xake-txapelketa egin zituztela otsailaren, ekimen beraren baitan.

Info+: www.getxo.net

GETXOLANEN IKASTARO BARRIAK

Udalerriko enpresa txikiei eta enpresa sortzeko prozesuan dauden ekintzaileei zuzendutako prestakuntza-ekintzen egutegia aurkeztu du Getxolanek: *“profesionaltasun-egoera hobetzerari bideratuta daude”*. Batetik, pertsona ekintzaileei zuzendutako ikastaroak eta tailerrak eskainiko dituzte, kultura ekintzaileari eta enpresa-kudeaketari buruzkoak. Bestetik, merkataritzaren sektoreari begirako ekintzak garatuko dituzte. Edozein ekimenetan izena emateko Getxolanen bulegora joan behar da, Areetako Elkartegian (Ogoño, 1).

Info+: 944 660 140 eta getxolan@getxo.net

OIARBIDE DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaia, baldak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoiarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, 48993 GETXO

MR TALLER MECANICO

Coches, Motores Marinos y Fuerabordas
Mota guztielako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargetzaileak, Soinua...

Tf. 94 430 17 81

Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO

uk **zure publizitatea hemen!**

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

AJANE > algortako nagusien elkarte

“Bazkideak animatu gura ditugu antolatzen ditugun ekimenetan laguntzera”



Zabala kalean lokala utzi die Udalak

Martxoaren 18an lehen urteurrena ospatuko du AJANE Algortako nagusien elkarteak. Uргull kaleko nagusien etxeko eskaintza murriztu zutenean euren kabuz antolatzea erabaki zuten erretiratu-talde batek. Udalak lokala utzi die Zabala kalean asteburuetan erabiltzeko, baina handik kanpora egiten dituzte ekintza gehienak, horrenbeste bazkiderentzako tokia txiki lotu zaielako: urtebeteren buruan 162 bazkide lortu dituzte eta martxoan egingo dute bazkide-asanblada orokorra. UK-k zuzendaritza-batzordeko kideakaz berba egin du.

—Urtebete egingo duzue martxoan, baina zergatik sortu zenuten AJANE?

—Batzuk elkartu ginen, ez geundelako oso pozik Uргull kaleko BBK-ren nagusien etxeagaz. Izan ere, lehen danetarik eskaintzen ziguten: gimnasia, tailerrak, kafea, dantza, e.a. Baina ia erabat moztu zuten eskaintza: kartetan jolasteko eta kafea hartzeko aukera besterik ez zegoen. Udaleko zerbitzu sozialekoak hitz egin genuen eta hasieratik lagundu digute. Udalak berak animatu gintuen elkarte sortzera, eurek nausien etxeko kudeaketa

tramitatu bitartean, egunen batean zentroa Udalaren esku lotzeko asmoagaz. Eta kudeaketa elkarte batek egitea gura du.

—Denbora gitxian bazkide nahikotxo batu dituzue, ezta?

—Gaur egun 162 bazkide gara eta administrazio-kontseiluan hamar lagun gaude. Gainera, beste 200 bat jarraitzaile ere badauzkagu: abiadura onean goaz.

—Eta zer egiten duzue, orain arte zer gauza antolatu dituzue?

—Apurka goaz, baina nahiko aurreratuta gaude, iaz hainbat ekimen garatu geni-

tuen-eta. Azaroan gaztaina-jaiak egin genuen Zabala eskolan: gaztainak eta ardoa banatu genituen, eta ehundik gora lagun etorri ziren. Gimnasia klasea ere antolatu dugu eta San Martin elizan egiten da, lokal honetan ez baitauekagu nahi-

«Batzuetan ez gaude ados, baina danak goaz norabide berean»

koa toki. Gabonetako bazkaria, urteerak, hitzaldiak eta abar ere egin ditugu. Ekonomiak ere mugatzen du eskaintza, baina halere, gauzak egin egiten ditugu. Bazkideen ekarpenakaz eta Udalaren diru-laguntzagaz finantzatzen ditugu ekimenak.

—Beraz, ez zarete toki honetara mugatzen, ezta?

—Ez, hemen elkartzen gara asteburuetan hitz egiteko, kartetan jolasteko, e.a. As-telehenetan xake-ikastaroa daukagu eta mus-ikastaroa ere antolatu gura dugu. Baina gainontzekoa hemendik kanpora egiten dugu.

—Zer prestatzen ari zarete datozen hila-beteotarako?

—Otsailaren 12an hitzaldia izango dugu aitite-amamen funtzioari buruz, eta martxoaren 12an asanblada orokorra. Bestalde, urteerak prestatzen gabilta: bata Burgos aldera gerezioendoen loraldia ikusteko, bestea Arandara. Gainera, ibilaldiak egitera urtengo gara, egunpasa. Mugak muga, jendeak gure ekimenetan parte hartzeko gogoia dauka. Zuzendaritzari dagokionez, ilusioa daukagu. Batzuetan ez gaude ados, baina hori aberasgarria da: danak gaude ontzi berean eta bagoaz norabide berean. Bazkideen partehartzea beharrezkoa da ekimenak antolatzeko, beraz inplikatzera animatu gura ditugu. ○

Martxoaren 8rako

mobilizazioak deitu dituzte **hainbat elkartek**, bai **Algortan**, bai **Romon**



Irudia: UKBERRI.NET. Abortatzeko eskubidearen alde manifestazioa, Areetan, urtarril akabuan

Emakumeen Eguna izango da martxoaren 8an eta, urtero legez, ekimenak eta mobilizazioak antolatu dituzte hainbat eragilek, Romon eta Algortan.

Udaleko Berdintasun Zerbitzuak lau ekitaldi prestatu ditu. Horrela, martxoaren 3an, hitzaldia emongo du Izaskun Landaida Emakundeko zuzendariak Algortako kultur etxean, 19:00etan: berdintasun-politikei buruz jardungo da. Hilaren 5ean, mahaingurua izango da, *Sexu eta ugalketa eskubideak. Abortoaren erforma legea* izenburuagaz. Hitz egingo dute: Itziar Irazabal Medicusmundi Bizkaiko presidentek eta Anabel Sanz Abortatzeko

eskubidearen aldeko plataformako kideak; Algortako kultur etxean eta 19:00etan. Martxoaren 10ean, *Codigo Atenea* lana antzeztuko du La Dinamika taldeak Fadura kirolegian, 19:30ean. Hilaren 12an, barriz, *81 amama* dokumentala emongo dute Areetako Elkartegian, 19:00etan.

Bestalde, martxoaren 8an, Algortako Bilgune Feministak manifestazioa egingo du 19:30ean, Telletxetik (inauteriak direnez, emakumeen ikurrez eta beren eskubideen urraketa garaiez moztortzera deitu dute). Romon bizikletada egingo dute 11:30ean eta manifestazioa 13:00etan. ○

KULTUR ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEA

Herriko kultur elkarteek martxoaren 5era arte eska diezaiekete diru-laguntza Udalari. Aurten 104.000 euro banatuko dituzte, “kultur elkarteen ohiko gastuei aurre egiten laguntzeko”. Laguntza eska dezakete “etekin asmorik gabeko kultur elkarteek, nortasun juridikoa eta egoitza soziala Getxon dutela, kultura jardueraren bat egiten badute eta diru-laguntza deialdiaren oinarrietan jasotako irizpideekin bat badatoz”. Oinarriak eskura daitezke Udalaren webgunean.

Info+: www.getxo.net

ANIZTASUNAK JOLASA AURKEZTUKO DUTE

Prestakuntza-jardunaldia antolatu dute Getxoko Udalak, Berritzegune Hezkuntzarako laguntza zerbitzuak eta Unesco Etxeak, *Aniztasunak: sormen-jolasa ekimena* aurkezteko. Gazteak kultura-adierazpenen aniztasunaren inguruan sentsibilizatu, sormena sustatu, kultur politiken garrantziaz eta erabilgarritasunaz ohartarazi, eta elkartasuna eta kooperazioa bultzatu gura dituzte: 12 urtetik gorako gazteei zuzenduta dago ekimena. Otsailaren 27an izango da aurkezpen-jardunaldia, 09:00etatik 13:00etara, Berritzegunean (Artaza, 81. Leioa).

Izen-emotea: **944 276 432** eta j.dominguez@unescoetxea.org

GETXON ZUZENEAN, MARTXOKO EMANALDIAK

Getxon Zuzenean kontzertuen egitasmoak aurrera darrai eta ondoko emanaldiak izango dira martxoan: hilaren 6an, Pablo Riosek abestuko du Algortako Jolasurre tabernan; martxoaren 13an, La West Bluegrass Band-ek Romoko West Side tabernan; hilaren 20an, Rudy Mental-ek Algortako Usategi tabernan; eta martxoaren 27an, The Beautiful Brains-ek Areetako Mojo Cluben. Kontzertuak 20:00etan hasiko dira eta doan izango dira. Gainera, otsailaren 27an Peter abeslaria egongo da Areetako El Comercio kafetegian.

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Javier de la Bodega Domingo-Aldama > EAEko Matematika-Olinpiadako irabazlea

“Lagun batek esan zidan: ni iazko matematikak gainditzeko eta zu Euskadiko txapeldun!”

EHUk antolatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Matematika-Olinpiada irabazi du Javier de la Bodegak, Artatza-Romo ikastetxe-ko Bigarren Batxilergoko ikasleak. Martxoan Valentziara joango da Estatuko olinpiadan parte hartzera.



Artatza-Romoko ikaslea da de la Bodega

—Olinpiada irabazi duzu, zorionak!

—Bai, susmoa neukan agian ondo geratu-ko nintzela, iaz hirugarren geratu nintzelako. Iaz ez neukan esperantzarik pasatzeko, probatzera joan nintzen, baina pasatu nintzen. Horregatik, aurten pentsatu nuen agian hobe nezakeela. Orain Espainiako fasera noa, Valentzian izango da. Han problemak askoz zailagoak izango dira eta ahal dudana egingo dut; iazkoa bereziki zaila izan zen.

—Zelakoa da proba?

—Sei problema askatu behar dira: goizean hiru eta arratsaldean beste hiru; sorta bakoitza egiteko hiru ordu eta erdi daukazu. Enuntziatua nahiko sinplea da berez, arazoa da erantzuna lortzea: problema ulertzen duzu, baina konplikatu da askatzea. —Jende askok ez ditu gustuko matematikak; zuk, oster, bai?

—Badirudi zailak direla, baina nire kasuan ez da horrela. Ez nago besteen buruan, baina zerbait ulertzen ez duzunean eta ho-

rretan trebea ez zarenean, hainbat ordu sartu behar badituzu lan horretan, orduan ulertzen dut gustuko ez izatea. Gustuko ditut uste dudalako trebetasun hori daukadala, bestela, agian, ez nituzke gustuko. —Asmoa daukazu matematikak ikaste-ko unibertsitatean?

—Oraindik zalantzatan nago. Ez dakit zer ikasi: fisika, ingeniari-za elektronikoa, matematikak... Horretan nabil, batez ere matematika eta fisikaren artean nago.

—Ikaskideek zer esaten dizute?

—Lagun batek esan zidan, txantxetan: “Ni oraindik nago iazko matematikak gainditu barik eta zu Euskadiko lehena!”.

—Lagundu beharko diozu orduan...

—Bai, bai, askotan lagundu diet lagunei. Eta hainbat dei izan ditut, familia handia daukat-eta: amonak 13 seme-alaba izan zituen. Lagunen, ikaskideen eta irakasleen artean ere irrika handia dago. Pozik daudela uste dut, eta ni ere bai! ○

Martxoko eskaintza

N-estetika erakusketa eta **Marlango** taldearen **kontzertua** Kultur Leioan



Marlango musika-taldeak joko du martxoaren 8an

Proposamen bereziak topatu ditugu Kultur Leioako agendan hil honetarako: erakusketa eta kontzertu bana izango dira datozen asteotan.

Alde batetik, Lesagibel eskultoreak egur lanak erakutsiko ditu, erakusketa-gelan, oraindik eta martxoaren 30era: N-estetika dauka izenburua. Egurragaz lan egiten du artista nafarrak, materialak jorratuz, eta formak eta koloreak elkartzuz bere proiektuetan. Urte mordoia ibili da euskal artisautzan, imajinagintzan ere ibili da eta, gaur egun, lan abstraktuak egiten ditu. Baserritarra da eta etxeko lanetatik ateratzen du egurra.

Beste alde batetik, Marlango musika-taldeak kontzertua emongo du Audito-

rium aretoan martxoaren 8an: Leonor Watling (ahotsa), Alejandro Pelayo (pianoa) eta Oscar Ybarrak (tronpetak) osatzen dute taldea.

Un día extraordinario bosgarren diskoa aurkeztuko du Leioan Madrilgo taldeak: ohi legez, pop-soinuak biltzen ditu, jazz eta bluesaren eraginagaz. “*Gauzen egunerokotasunera eta xumetasunera buelta islatu*” gura izan dute; “*Dame la razon*” da lehen singlea. Beste disko batzuetan ez bezala, albuma gaztelaniaz konposatu eta ekoitzi dute. Marlango 1998an grabatu zuen lehen maketa, eta 2004an argitaratu lehen diskoa. Kontzertua 21:00etan hasiko da eta sarrera 15 eurokoa da. ○

Info+: www.marlango.net

INAUTERIAK OTSAILAREN 28TIK MARTXOAREN 4RA

Otsailaren azkenengoan hasiko dira inauteriak Leioan, barikuan. Arrastiko 17:00etatik aurrera umeentzako jarduerak egongo dira Euskal Etxeen plazan, Maritxu Teilagorri batzordeak antolatuta. Gauean, barriz, helduen moztorro-lehiaketa eta erromeria izango dira Ikea Barri plazan, 22:00etatik aurrera. Umeen lehiaketa, oster, hurrengo martitzenean izango da, martxoaren 4an, non eta Kandelazubieta Kiroldegian: egun osoan egongo dira tailerrak, jolasak eta ikuskizunak, eta lehiaketa 18:30ean hasiko da. Erdu jaira!

EUGENIO GUTIERREZ HIL ZUTELA 30 URTE

1984ko otsailaren 25ean hil zuen GALEk Eugenio Gutierrez Salazar *Tigre* leioaztarra, Iduze-Mendian (Zuberoan). Leioako San Juan auzoan jaio zen 1955eko urtarrilaren 14an. Sindikalagintzan aritu zen, Amnistiaren Aldeko Batzordeetan, eta 1983an ihes egin zuen. Handik urtebetera tiroz hil zuen GALEk Iduze-Mendiko barnetegian euskara ikasten ari zen garaian, eskola-atarian. Berria egunkariak GALi buruz argitaratu duen lanean jaso duenez, egun berean hartu zuen bere gain atentatua GALEk. Sekula ez dute inor epaitu hilketa horregatik eta ikerketarik apenas eginda artxibatu zuten auzia.

POP-ROCK LEHIAKETA

Leioako Pop-Rock lehiaketan parte hartzeko lanak aurkez daitezke daborduko: maketak edo CDak emoteko azken eguna apirilaren 11 izango da. Gainera, izen-emote orria bete behar da eta, musika taldean 18 urtetik beherakorik egonez gero, gurasoen edo tutorearen baimena bete behar da. Maketak bidali behar dira Aterpe Gaztegunera (Aldapabarrena, 2). Zalantzarik izanez gero, 944 055 850 telefonora deitzea edo gazte@leioa.net helbidera mezua igortzea daukazu.

Info+: www.leioa.net



**%50 arteko
Beherapenak**

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57



Luberrri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandoio (Blzkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberrri@euskalnet.net
www.luberrri.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inauteria, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Itxaso Urcelay > Sortarazi elkarteko koordinatzailea

“Oinarrizko beharrak asetzeko laguntza eta babes soziala eskaintzen diegu bazterketa bizi dutenei”

Erandioko Udalagaz hitzarmena sinatu du Sortarazi giza-garapenerako elkarteak. Asmoa da bazterketa-egoera bizi duten pertsonen zenbait prestazio bermatzea; hala nola, janaria, arropa, egoitza, eskola-materiala, edota etxebizitza. Udalak 10.000 euroko laguntza emon dio elkarteari.

—Zein da hitzarmenaren asmoa?

—Gizarte Zerbitzuetatik pasatzen diren pertsonak artatzeko hitzarmena da, inklusio sozialerako laguntza-programa behar dutenak. Batetik, oinarrizko beharrak asetzeko beharra daukaten pertsonak dira; bestetik, bazterketa egoera larriagoa bizi dutenak eta bestelako beharrak ere badauzkatenak: hezitzaile baten jarraipenak edota ekintza okupazioan parte hartzea behar dute. Urteak daroaguz zeregin horretan, bai Erandion, bai Getxon eta Leioan; 1996an hasi ginen lanean.

—Zeintzuk zerbitzu eskaintzen dituzue?

—Zerbitzu desberdin bi eskaintzen ditugu: oinarrizko beharren asetzeko eta laguntza soziala. Lehenengoa, oinarrizko beharrak asetzeko nahikoa diru-sarrerarik ez daukaten familiei zuzenduta dago (behar horiek dira jana, etxebizitza, botikak, eskolarako materiala, e.a.); gure fondoagaz



Leioako Lamiako auzoan dauka egoitza Sortarazik

laguntzen diegu argia, ura edota alokairua ordaintzen, eta janaria emoten diegu. Jakiak elikagaien bankutik datoz hileru baina, laguntzeko hainbeste pertsona daukagunez, elkarte pribatuak eta norbanakoek emondako elikagaiez osatzen dugu fonda. Iaz 500 familia lagundu genituen.

—Bigarren programa bat aipatu duzu?

—Bai, eguneko arreta behar dutenentzako zerbitzua da: egunean zehar egoteko zentro bat behar dute, hezitzaileak, eta aterpea ere behar dutelako (kalean bizi di-

relako). Ekimen desberdinak egiten dira: aisialdikoak eta hezkuntza-arlokoak.

—Esan duzunez, 1996an hasi zineten?

—Bai, orduan adinez txikikoak lan egiten genuen eta, 2001etik aurrera, aipatu arloak lantzen ditugu. Helburua da bazterketa soziala bizi edo bizitzeko arriskua daukaten pertsonak gizarteratzea, eta giro horretatik ateratzeko nahikoa autonomia lor dezatela. Lamiakon Lanbideren ikastaro batzuk eta lanbide-orientazioa ere eskaintzen ditugu, osagarri moduan. ○

Maskara ipintzeko garaia!

Erandioko inauteriak otsailaren 28an eta martxoaren 1ean ospatuko dira



Ekitaldiak antolatu dituzte Erandiogoikoan, Astrabuduan eta Altzagan

Auzoz auzo, hamaika ekitaldi egongo da inauterietan Erandion, otsailaren 28an eta martxoaren 1ean (barikuan eta zapatuan).

Adin guztietako pertsonen aukera izango dute ondo pasatzeko, umeek bereziki. Erandiogoikoan eurentzako ikuskizuna prestatu dute otsailaren 28ko arrastirako, eta zapatu goizean puzgarriak eta tailerrak egongo dira eta arrastian Xai-borren diskoteka; hori dena Euskadi plazan. Astrabuduko Josu Murueta plazan, zapatu goizean izango dira umeentzako jarduerak eta arrastian mozorro-lehiaketa, baita txokolate-jana ere. Altzagan, azkenik, barikua 28an dantzaldia

egingo dute, zapatu goizean puzgarriak eta tailerrak egongo dira, eta arrastian mozorro-lehiaketa.

Bestalde, nagusientzako ere prestatu dute zer edo zer. Erandiogoikoan, euskal inauteria egongo du Goi Alde dantza-taldeak zapatu arrastian. Astrabuduan ere egongo da euskal inauteria, Trabudu dantza-taldeak antolatuta, baina barikuan; eta zapatuan nagusientzako mozorro-lehiaketa izango da, 20:30ean. Altzagan ere zapatu arrastian izango da nagusientzako mozorro-lehiaketa eta Erandioko musika-bandaren kalejira. Eta kaleko animazioak ez da faltako inauterietan iraun bitartean. ○

GOAZEN TXOTX EGITERA MARTXOAREN 15EAN!

Sagardotegien sasoian sartuta gaude bete-betea eta, zelan ez, Berbots Erandion Euskaraz taldea urteera antolatzen ari da martxoaren 15erako. Aurten Zalbide sagardotegira joango dira, Abaltzisketara. Ohi legez, bazkalostean Hernanira hurbilduko dira osteratxo egitera. Goizeko 11:00etan urtengo dira Erandioko gasolinotik eta gauerdia izango da itzultzeko ordua, Hernanitik. Prezioa 35 eurokoa da (Berboskideek 30 euro). Izena emon behar da martxoaren 8a baino lehen, Altzagako La Plaza tabernan edo berbots@gmail.com-era mezua igorrita.

Info+: www.berbots.org

LAGUNTZA ESKOLETAN HOBEKUNTZAK EGITEKO

Erandioko eskoletan hobekuntzak egiteko 373.000 euro inbertituko dituzte Eusko Jaurilaritzak eta Udalak aurten. Horrela, lanak egingo dituzte Astrabuduko Ignacio Aldekoa, Erandiogoikoko CEP Goikolanda eta Kukullarrako Alzaga eskoletan. Ignacio Aldekoan, bigarren solairuko argiteria barritu, eta beheko solairuko mutilen komunak eta aldagelak konponduko dituzte, besteak beste. Goikolandan, barriz, eskolara sarbide barria egongo dute, iaz patioa konpondu ostean. Eta Altzagan, besteren artean, lehen solairuko zoruko estaldura barrizatu, sarbideko arrapalak barritu eta fatxada konponduko dute.

LEHEN ANBULATORIO, ORAIN GUNE SOZIAL

Astrabuduko kultur, kirol eta arlo sozialeko elkarteek badaukate elkartzeko leku barria, non eta lehenengo anbulatorioa kokatzen zen tokian. Eraikin horretan kokatuko dira oraindik aurrera, besteak beste, emakume-elkartea eta merkatar-elkartea, baita bestelako taldeak ere. Bulegoak, armairuak bilerak egiteko lekua edota hitzaldietarako aretoa dauzka eraikinak. Mendiguren enparantzaren alboan dago.

Info+: www.erandio.net

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tf-944305243/ 607952977-6 regarazar@gmail.com
www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA


BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaairratia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

SOPELA TUPERRA ERABILTZEAREN ALDE

Sopelako Udalak tokiko komertzioetan erosketak egiten direnean tupperra erabiltzearen aldeko apustua egin du. Horretarako, interesa dutenek, udaletxean onzi horietako bat jasoko dute dohainik, martxoaren 31ra arte. Hala, auzokideek arraina edo haragia erosterakoan plastikozko eta paperezko hondakinak ahalik eta gehien gutxituko dituzte.

OLATUEK 83.000 EUROKO KALTEAK ERAGIN DITUZTE

Otsailaren hasierako denboraleak eta olatuek kalte handiak sortu dituzte Sopelan. Udako zerbitzu teknikoak egindako txostenaren arabera, kalteak 83.000 euro baino gehiagokoak dira, eta Kostaldeko Zuzendaritza Nagusiaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumena da kalte horiei aurre egitea.

HERRIKO INFORMAZIOA ESKURA, 6 PANELETAN

Sopelako Udalak sei informazio-panel jarri ditu herriko hainbat gunetan, bisitariei tokiko leku erakargarrien inguruko informazioa emateko. Hiru hondartza inguruetan jarri dira, beste bik Burdin-Hesiaren inguruko informazioa jasotzen dute, eta azkena Munarri-ibilbidearen hasieran dago.

EMAKUMEEN ASTEA, EKIMENEZ BETERIK

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, hainbat elkartek ekimen ugari antolatu dituzte Sopelan. Lehenengoa, martxoaren 3an izango da, *El Greco Toledon* hitzaldiagaz. Martxoaren 5ean, *Hainbat erlijio, genero-ikuspegitik* mahaingurua izango da. Azkenik, martxoaren 7an, *Erabakitze dugun eskubidea. Gallardonon abortu-legearen kontra* hitzaldia emango dute Anabel Sanzek eta Teresa Maldonadok.

Info+: www.sopelaudala.org

Auzo-bilera Sopelan Sopeloztarrak kezkatuta daude Urdulizko ospitaleak sor dezakeen trafikoagatik



Sopelako Udalak auzo-bilera antolatu zuen ospitaleak sor ditzakeen arazoak azaltzeko

Sopelako Udalak otsailaren 12an antolatutako auzo-bileran auzokideek beren kezka agertu zuten Urdulizko ospitaleak sor dezakeen trafikoa dela-eta. Bileran 70 lagunek parte hartu zuten, gehienak Gatzarriñe, Enrike Urrutikoetxea eta Olabide kaleetakoak. Bertan, auzokideen ekarpenak jaso baino lehen, Saioa Villanueva alkateak eta Alain Goldaraz alkateordeak egoeraren nondik norakoa azaldu zituzten. Horien arabera, gaur egungo sarbideak hiru modu daude ospitalera heltzeko: Olabide kaletik, Gatzarriñe kaletik aurrera jarraituz Garden

Center igaroz Urdulizeraino, eta Sopelako herrigunea zeharkatuz. Horietatik, Osakidetza eta Urdulizko Udalak Olabidekoa onetsi dute. Hala, horrek trafikoa nabarmen igoko luke herrian. Bestalde, Udal Gobernuak kideek azpimarratu zuten eraikina egiteko aukeratu duten lekua ez dela egokia, ez duelako inolako sarbiderik eta gune horren ingurumen garrantziagatik. Arazo horri konponbidea bilatzeko asmoz, Sopelako Udalak gonbitea luzatu zien proiektuan inplikaturik dauden erakundeei bilera bat antolatzeko. ○

Haizea Bengoetxea > Plazaratu elkarteko kidea

“Gure beharrak eskualdeko produktoreen artean asetzea gura genuke”



Hileko bigarren astebururo herri-azoka hartzen du Sopelako udaletxe-plazak

Abenduaz geroztik, hileko bigarren zapatuan inguruko ekoizle eta artisau herri-azoka hartzen du Sopelako udaletxe-plazak. Bertan, 11:00etatik eguerdira arte eskualdeko artisauek eta ekoizleek prestatutako produktuak daude eskuragarri.

—Zelan sortu zen hileroko herri-azoka egitearen ideia?

—Eskualdeko artisau eta produktore agroekologiko talde txiki bat elkartu eta Plazaratu kolektiboa osatu genuen. Gure arteko elkargune bat sortzeaz haratago, herrian espazio propio bat izatearen ideia ateratu zen, hilean behin, lekuan lekukoa kontsumitu eta eskualdeko produktore eta artisauak ezagutu ahal izateko.

—Zein izan da zuen motibazioa hori aurrera eramateko?

—Artisau eta produktore txikiak gara, eta gure eskaintza zabaltzeko plaza gako dala uste dugu. Espazio berean, zuzeneko harremanak landu, ekoizpenen jato-

ria eta lan egiteko modua ezagutu eta, oro har, beste kontsumo eredu bat sustatzeko aukera ematen duelako.

—Zelakoa izan da jendearen harrera lehenengo saiakera hauetan?

—Kontsumo ohiturak aldatzea zaila den arren, azokaz azoka jendea gero eta interesatuagoa igartzen dugu.

—Zenbatek parte hartzen duzue?

—18 postu finkok osatzen dugu, eta hileroko 3 edo 4 postu gonbidatzen ditugu azokan parte hartzera. Guztira 22 postu inguru elkartzen gara.

«Jendea gero eta interesatuagoa igartzen dugu»

—Etorkizunari begira, zelako bilakaera izango duela uste duzue?

—Azoka egonkortzeko asmoz gatoz. Gure beharrak eskualdeko produktore eta artisauen artean asetzea gustatuko litzaiduke, eskuz edo produkzio eredu agroekologikoan lan eginez. ○

Haiak
Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!
Bentatxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

DIDAK hAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

OINUTSIK

KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

ZUBEROAKO MASKARADA ETA JOALDUNAK MARTXOAREN 2AN

Martxoaren 2an Simon Otxandategi dantza-taldeak inauteriak ospatuko ditu Berangoko hainbat auzotan. Zuberoako inauteriak dituzte oinarri, eta 100 pertsona baino gehiagok parte hartuko dute. Horiekin batera, abastaldeak hainbat herri-abesti interpretatuko ditu. Hala, goizeko 11:00etatik aurrera, Axxane, Lantzarte, Karabiganetik eta Sabino Aranatik igaroko dira.

UMEENTZAKO ZINEA ETA IPUIN KONTALARIA

Martxoaren hasieragaz batera, gaztetxoek kulturaz gozatzeko aukera izango dute Berangon. Izan ere, tokiko Kultur Etxeak doako eskaintza anitza prestatu du egun horietarako. Martxoaren 9an, domekan, *Winkyren zaldia* pelikula proiektatuko dute; eta astebete beranduago, martxoaren 16an, *Autu Mautu* ipuin kontalariagaz une politak igarotzeko unea izango da. Bi saioak 18:00etan izango dira, Berango Antzokian.

ENDIKA BASAGURENEN ARTEA IKUSGAI ALGORTAN

Endika Basaguren berangoztarrak azken proiektua aurkeztu zuen otsailaren 11n Algortako etorbideko 88 zenbakian dagoen Geroarte galerian. *Monedas de cambio* izeneko lan horretan, artistak egindako hainbat irudi, argazki eta muntaketa daude ikusgai. Erakusketa martxoaren 10era arte egongo da.

**uk zure
publizitatea
hemen!**

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

Berdintasunaren alde Emakumeen Egunaren harira ekimen ugari antolatu dituzte Berangon martxorako



Martxoaren 9an berdintasunaren aldeko jaialdia egingo dute

Emakumeen Nazioarteko Egunagaz batera, Berangok hainbat ekimen hartuko ditu martxoan. Hasteko, otsailaren 28an eta martxoaren 1ean nerabeentzako autodefentsa ikastaroa egingo dute Gaztegunean, 19:00etatik 21:00etara. Martxoaren 5ean, Miren Agur Meabe idazleak hitzaldia eskainiko du Berangoeta Kultur Etxean, 19:00etan. Bi egun geroago, martxoaren 7an, Ludotekak, ludoklubak eta haur-liburute-giak hainbat tailer egingo dute berdintasuna sustatzeko aldera. Martxoaren 8an, Uribe Kostako Mankomunitateak Ar-

mintzan eguerdikoko 13:00etarako antolatutako ekimenera joateko deia luzatu du tokiko Udalak. Arrastian, barriz, Berangoko Emakumearen Kultur Elkarte-k kideek ikuskizun bat egingo dute arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Bestalde, martxoaren 9an, berdintasunaren aldeko jaialdia egingo dute frontoian. Bertan, berdintasuna sustatzeko umeentzako tailerrak, ipuin kontalariak eta antzerkiak egongo dira, besteak beste. Horregaz batera, elkartasun pintxo potea egingo dute. ○

Info+: www.berango.net

Iker Aulestia > Maialen Aulestiaren aita

“Egunero bost ordu ematen ditu zentro berezietan eta fisioterapiari”



Punta Galea taldeak Maialen Aulestiari laguntzeko jaialdia egingo du martxoaren 15ean

Maialen Aulestia gaixotasun arraro bat pairatzen duen Urdulizko umea da. Egun ez dago tratamendurik sindrome horri aurre egiteko, baina, egunez egun egindako lan guztiaren ondorioz, ibiltzen ikasi eta bizi-kalitatea apur bat hobetu duela jakinarazi dute haren gurasoek. Punta Galea txirindulari elkarteak elkartasun jaialdia egingo du martxoaren 15ean familia horri laguntzeko.

—Zer eragiten du, zer ondorio, zer sintoma Donahue sindromeak?

—Pronostikoa zalantzakoa da, hazkuntzari larri eragiten dio eta bizi-itxaropena hilabete edo urte gutxikoa izaten da, beste gauza askoren artean. Baina, galderari erantzunez, Donahue sindromeak egunero borrokan egotea suposatzen du. —Gaixotasun arraroa da, zenbat kasu ezagutzen dira gaur egun?

—Historian zehar 50 kasu ezagutu dira bakarrik. Espainian hiru kasu diagnostikatu dituzte orain arte. Esan genezake Maialen “zientziaren umezurtza” dela,

ez dagoelako gaixotasun hau ikertzen duen inor, eta ez dago sendabiderik. —Zein bizi-baldintza ditu Maialenek? —Egun guztiak zalantzarriak dira, gaixotzen duen edozer gauzak ospitale-ratzeko arriskua ekartzen baitio. Gai-

**«Maialenek ezin ditu
beste umeak bezala
muskuluak eratu»**

nera, sindromeak bestelako gaitzak sortzen ditu, hala nola, giltzurrunetan etengabeko mina eta lepoan jasaten duen *acantosis nigricans* zorrotza. Bestalde, egunero elikagaiak hartu behar ditu lau orduko. Hala, ordu txikietan gurasoek biberioia eman behar diogu birritan.

—Zelan hartu duzue Punta Galea taldeak hartutako iniziatiba?

—Oso harrিতa, haiek izan baitira gurekin kontaktuan jarri direnak. Ilusio handiz hartu dugu iniziatiba hori eta asko eskertzen diegu Maialenengatik egiten hari diren lan guztia. ○

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



UKnatura
ZITEK PORTUGALSTE
ESCUOLA SUPERIOR DE NÁUTICA, PORTUGALSTE
MARIA DIAZ DE HANG, 68
48960 PORTUGALSTE (BIZKAIA)

2013-2014 KURTSOA

- * BIOERAKUNTZA TAILERRAK
- * ARTISAU YABOIAK ETA KOSMETIKOAK
- * BIOERAKUNTZAKO PROIEKTUAK
- * ENERDIA BERRITZAGARRIAK
- * HERAZI KAYAK

ETA AGOZ BEHIBO.

www.uknatura.org 092705471 / 646742241



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriari igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialk garbitzea
- Lan osogarrria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia · fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor Ianda 4, Sopela
Telf.: 946026779



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
- ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



INAUTERIETAKO TOSTADA ONENAREN BILA

Barrikako Udalak tostada lehiaketa antolatu du aurten ere, martxoaren 3rako. Lehiakide bakoitzak dozena bat ale aurkeztu beharko ditu egun horretan, udaletxeko beheko solairuan. Interesa dutenek Udal Kultur Gunean eman beharko dute izena, martxoaren 1a baino lehen.

ARGIHIZKIAK ERAKUSKETA PLENTZIako UDALETXEAN

Argihizkiak Uribe Kostako literatura-lehiaketan parte hartutako lanak ikusgai egongo dira Plentziako udaletxean, otsailaren 24tik martxoaren 9ra bitartean. Lan horiek argazki batzuetan oinarritutako testu laburrak dira. Lehiaketaren helburua jendea euskaraz idaztera eta irakurtzera animatzea izan zen, eskualdeko argazkilariak eta euren lana sustatzeagaz batera.

GIMNASIA-IKASTARoAK LEMOIZEN

Lemoizko Udalak zoru pelbikoa indartzeko eta gimnasia hipopresiboa ikastaroak antolatu du. Guztira, 8 klase izango dira, 50 minututakoak. Parte hartu gura dutenek otsailaren 28a baino lehen eman beharko dute izena tokiko Kultur Etxean. Hala, interesatuek bi aukera izango dute parte hartzeko, ostiraletan goizeko 10:30ean, eta ostegunetan arrastiko 18:00etan. Ikastaroak 80 euro balioko du.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Uribe Kostako Mankomunitatea

Emakumeen Nazioarteko Eguna presente eskualdeko udalerrri guztietan



Martxoaren 8ari begira, ekimen ugari egongo dira eskualde osoan

Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Uribe Kosta osoan.

Plentzian, Araldi elkarteok Emakumearen Astea egingo dute martxoaren 3tik 8ra bitartean. Hasteko, martxoaren 3an, astelehenagaz, tarta-lehiaketa antolatu dute, arrastiko 18:00etan. Hurrengo egunean, martxoaren 4an, ibilaldia egingo dute Plentziako zubitik abiatuta, goizeko 09:00etan. Eguaztenean, Bilboko Ensantxea ezagutzeko bisita gidatua antolatuko dute. Horretarako, goizeko 10:00etan jarri dute hitzordua, Plentziako metro-geltokian. Martxoaren 6an, egunean, zine foruma egingo dute Goñi Portalean, 17:30etik aurrera. Hurrengo egunean, martxoaren 7an, Virginia Imazek zuzendutako *Clowntrapublicitaria* antzerkia egongo da ikusgai Goñi Portalean, 19:00etan; eta martxoaren 8an, Biarritzera eta Hondarribira irteera egingo dute; hitzordua goizeko 08:00etan

jarri dute Charterrean.

Barrikan, berriz, Emakumeen Hitzak elkarrekin tokiko elkarrekin manifestu bat irakurri eta arrautzopil eta tarta-lehiaketa egingo du martxoaren 8an, 18:00etan, Goierriko Ander Deuna Kultur Aretoan.

«Uribe Kostako Mankomunitateak ekimena antolatu du Armintzan 13:00etan»

Horregaz batera, beste urte batez, Barrikako Piragua-Taldeak herri-estropada egingo du, San Telmotik abiatuta, 100 emakumeren partaidetzagaz; eta Barrikako Tennis-taldeak padel-txapelketa egingo du 15:00etatik aurrera, Abaroako kantxetan.

Uribe Kostako Mankomunitateak, bere aldetik, besteak beste, ekimen bat antolatu du martxoaren 8rako Armintzan egingo ei dena. o

Ots. 24 - Mar. 10

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

GETXO
▶ **Vivencias (Vicente Lopez Hermosoren margoak)**. Martxoaren 5era arte. Algortako kultur etxean.

LEIOA
▶ **N-estetika**. Martxoaren 30era arte. Kultur Leioan. Doan.

PLENTZIA
▶ **Emakume-begiradak**. Martxoaren 6tik 28ra. Goñi Portalen.

ANTZERKIA

ERANDIO
▶ **Ipuin-kontalaria**. Otsailak 26, 18:00etan. Astrabuduko liburutegian.

BERANGO
▶ **A tropicones**. Martxoak 1, 19:00etan. Berango Antzokian. Doan.
▶ **Berangoko emakumeen ikuskizuna**. Martxoak 8, 19:00etan. Berango Antzokian. Doan.

GETXO
▶ **Sexpereaente (Sexpeare taldea)**. Martxoak 1, 20:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 10/12 euro.

LEIOA
▶ **La mantis religiosa (Kafe Huts taldea)**. Martxoak 5, 19:30ean. Kultur Leioan. Gonbidapenagaz.

PLENTZIA
▶ **Clowntrapublicitaria (Virginia Imaz)**. Martxoak 7, 19:00etan. Goñi Portalen.

URDULIZ
▶ **Magia Simpatika (Horman Poster taldea)**. Martxoak 7, 20:00etan. Kultur etxean.



Algortako Torrenen ipini dute erakusketa

▶ Erakusketa

Euskal jantziak erakutsiko ditu Itxas-Argiak

Getxoko Itxas-Argia dantza-taldeak 50 urte bete ditu eta ospatzera doa. Horretarako, ekimen bereziak antolatu dituzte eta horietako lehena izango da erakusketa bat: euskal-jantzi tradizionalen bilduma erakutsiko dute Algortako Torrene aretoan, oraindik eta martxoaren 16ra arte. Erakusketan dantza-taldeak mende erdian egindako saioen argazkiak ere ikus daitezke. Gainera, ondokoak ere prestatzen dabilta, besteak beste: inauteri-jaiak martxoaren 2rako, flashmob-a apirilaren 5erako, dantzari ohien dantzaldi eta bazkaria maiatzaren 10erako, Getxoko dantzari-taldeak plazara ekimena ekainaren 26rako eta Euskal Herria dantzaldia azaroaren 15erako.

• **Non:** Algortako Torrene aretoan • **Noiz:** Martxoaren 16ra arte

MUSIKA

ERANDIO
▶ **Inauterietako entzunaldia**. Otsailak 28, 18:30ean. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean.

GETXO
▶ **Ondarreta abesbatza**. Otsailak 28, 20:00etan. Romoko San Jose elizan.
▶ **Peter**. Otsailak 27, 20:00etan. Areetako El Comercio tabernan. Doan.
▶ **Pablo Rios**. Martxoak 6, 20:00etan. Algortako Jolasaurre tabernan. Doan.

LEIOA
▶ **Marlango**. Martxoak 8, 21:00etan. Kultur Leioan. 15 euro.

PLENTZIA
▶ **Kantagune: entsegua eta kantujira**. Otsailak 28, 19:00etan.

GORLIZ
▶ **Erromeria**. Otsailak 28, 19:00etan. Elizako plazan.

SOPELA
▶ **Trio Txarango**. Martxoak 9, 19:00etan. Kurtzio kultur etxean.

ZINEMA

BARRIKA
▶ **Turbo**. Otsailak 28, 18:00etan. Ander Deuna aretoan.

GETXO
▶ **Vivir es facil con los ojos cerrados**. Otsailak 28, 21:00etan. 2,90 euro.

URDULIZ
▶ **El caballero don Laton**. Martxoak 1, 18:00etan. Kultur etxean.

BERANGO
▶ **Epic. El mundo secreto**. Martxoak 2, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.
▶ **Winkyren zaldia**. Martxoak 9, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

BESTEAK

LEIOA
▶ **Jon Sarasua, Uribe Kostako Irakurzaleen txokoan**. Otsailak 26, 19:00etan. Ongi Etorri topalekuan.
▶ **Martxoaren 8ko mobilizazioa**. Martxoak 8, 13:00etan. Bulebarrean.

BARRIKA
▶ **Tarta-lehiaketa**. Martxoak 8, 18:00etan. Ander Deuna aretoan.
▶ **Emakumeen herri-estropada**. Martxoak 8. San Telmotik.

PLENTZIA
▶ **Tarta-lehiaketa**. Martxoak 3, 18:00etan. Goñi Portalen.

SOPELA
▶ **Mahaingurua: Hainbat erlijio, genero-ikuspegitik**. Martxoak 5, 19:00etan. Kurtzio kultur etxean.
▶ **Hitzaldia: Gallardonoren abortulegearen kontra**. Martxoak 5, 19:00etan. Kurtzio kultur etxean.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Tintaz egindako azalak

Makillajez betetzen ditugu aurpegiak eta, inauterien sasoi honetan, sarri margotzen dugu gorputza. Askok, nahikoa ez, eta azala apaintzen dute letra, testu eta marrazkiak: betiko iraungo duten irudiak, benetako artelanak. Jende askok dauka tatuajeren bat azalean, batzuek marrazki txikiak, besteek gorputz osoa estaltzen dutenak. Algortako Rebel Tattoo dendan badakite zer edo zer gai honetaz.

Argazkiak: **Hodei Torres**





Aratusteak, mozorrotzeko beharraz

1956ko argazkia duzue alboko hori, Gorlizen ateratakoa. Hala zehazten du *Gorliz, herri baten aldiuneak* liburuak. Argazki-oinetan adierazten denez, “Jose Ignacio, Marina eta Juan Luis” dituzue irudian agertzen diren umeak: toreatzaile, manteniladun animatzaile eta zezen mozorroz jantzita. Agian, baliteke inauteri sasoiaren ateratakoa izatea, eta gaur egun gogoak legez, orduan, Diktadura frankista garaian, beharra ere izango zuten herritarrek zelanbaiteko jai-girorako, mozorrotzeko...

[berbetan]

Bertsolari eta idazle legez ezaguna den Uxue Alberdi Estibaritz (Elgoibar, 1984) ikasketaz kazetari da, eta hainbat hedabidetan jardun du. Literaturan, *Aulki bat elurretan* (Elkar, 2007) ipuin-liburuaren eta *Aulki joko*a (Elkar, 2009) eleberriaren ostean, helduei begirako hirugarren ipuin-bilduma du *Euli-giro* (Susa, 2013). Irakurzale-taldeetako dinamizale ere badihardu, eta Bertsolaritza feministaren inguruko hitzaldiak eta tailerrak ere eskaintzen ditu. Iragan otsailaren 20an *Kafkaren Aulkia* literatura, musika eta bertso-ikuskizuna eskaini zuen taldekideakaz batera Erandion; aukera baliatzeko asmoz elkarrizketatu dugu elgoibartarra eta sentipen, pentsamendu, jarrera eta bozgoragailu feministatik jardun da literaturaz, bertsolaritzaz e.a.

Uxue Alberdi

Ahots eta barru feministaz, publikoan

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Susa**

—*Euli-giro*, ipuin bilduma: bakoitza independentea bada ere, danak bat ditzakeen zelanbaiteko giro itxia dutela esan daiteke; guratan sortutakoa?

—Ipuin-bildumak bi eratan egin daitezke: bata, ideia baten bueltan idatzitako ipuinekin, edo bestea, erabat libreki eta gero antologia baten moduan bildu. Nirea bigarren kasua izan da. Ez neukan giro itxi batean idazteko asmorik; ezta titulurik ere, azkena jarri nion. Bi urtean ahalik eta ipuini onenak idatzi nituen, eta bilduma osatuta neukanean hasi nintzen pixka bat osotasunari begira. Eta konturatu nintzen bazirela batzen dituzten hainbat elementu: bata, giroa, halako atmosfera itogarri edo aztoragarri moduko bat; gero, protagonista ia guztiak emakumezkoak izatea; gorpuzak oso presente egotea, ipuin-liburu oso fisikoa dela iruditzen zait, emozioetatik eta sentsazioetatik abiatutako idatzitako ipuinak dira, eta sentsazioak beti gorputzetik pasatzen dira... Neu izanda idazlea, emakumea izanda, emakume-gorputzetik. Uste dut beti gertatzen dela: zuk idazten duzu eta gero nolabait jendeari esplikatu egin behar diozu zerbaite, amuren bat eman liburrura hurbiltzeko... Elkarrizketetan galderak

egiten dizkizute, eta orduan *a posteriori* sortzen dituzu azalpenak; ipuin liburu bat da, tonu jakin batekoa.

—Tonu errealistan idatzitakoak, errealismo magikokoak, kafkiarrak daude bilduman; erreferentzia-literario argi batzuek gainera, ez hain agerikoak direnak?

—Lehenengo ipuina Julio Cortazarren “La casa tomada” ipuinaren eta, aldi berean, Samanta Schweblinen “En la estepa” ipuinaren bertsio bat da, baina era berean nire istorioa kontatzeko; orduan, bi ipuin diferenteren eta nik kontatu nahi nuen istorio

rria izan daitekeelako... Liburu hau idaztean oso presente eduki ditut Samanta Schweblin, Alice Munro, eta Julio Cortazar beti dago presente, idatzi dudana guztian! 20 bat urte nituela liluratu nintzen bere literaturaz; esan dezaket, Cortazar imitatuz hasi nintzela idazten, munduan beste hainbat bezala. Nik behintzat hala jokatzeko dut: istorio bat dudanean, asko intuiziotik, baina istorioa indarririk handien edukiko duen moduan kontatzen saiatzen naiz. Batzuetan istorio berdinarekin saiatzen naiz tonu errealistan, eta konturatu ez dudala emozioa harrapa-

“Asko intuiziotik, baina istorioak indar handien edukiko duen moduan, teknika edo estiloan, kontatzen saiatzen naiz”

baten bertsio bat, gehi irratian entzun nuen albiste batetik sortutakoa... Ipuinetan esku artean dauzkazun materialak nahasten zaizkizu beti; eta uste dut literatur material horiek direla: batetik, norbere bizitza, norbere bizipenak eta emozioak; bestetik, kanpoan ikusi eta entzuten duguna; gero, irakurritakoak, gustukoak zein ez, batzuetan gustatzen ez zaizun ipuin bat oso inspiraga-

tzen harrapatu nahiko nukeen moduan, orduan beste era batean saiatzen naiz. Istorioa duzu eta *constructo literario* bat egiten duzu, nik uste jendeari ahaztu egiten zaiola estilo errealista ere *constructo* bat dela, ez errealitatea. Emozio horretara, kontatu nahi duzuna ahalik eta gehien gerturatzea da, teknika edo estilo bat ala bestea erabiliz.

—*Kafkaren aulkia* ikuskizunean, beste



zenbaitetan legez, literaturak, bertsoak eta musikak gunee bat partekatzen dute. Oier Guillen idazleagaz Erandion. *Gabrielen Lekuagaz* parekotasunak badira...

—Idazle bakoitzak bere istorioa kontatzen du, emanaldi bakoitzean idazlea aldatzen da. Hori da berezitasuna: emanaldi bakoitza bakarra dela. Antzekotasunak: biek izenburuan idazle baten izena daramatela, eta Andoni Egañak bietan parte hartzen duela. Bestalde, ez dute inongo zerikusirik. *Kafkaren aulkian* partaide finkoak hauek gara: Pello Ramirez musikaria (txeloa, akordeoia-rekin, batzuetan pianoa ere bai), eta Andoni Egaña eta biok bertsolari moduan; gero, orain arte parte hartu duten idazleak dira: Eider Rodriguez, Harkaitz Cano, Miren Agur Meabe, Arantxa Urretabizkaia, Itxaro Borda, Jon Sarasua e.a. Emanaldi bakoitzeko, idazle bakoitzari, aurrez, 30-40 min. inguruko errelato bat prestatzeko eskatzen diogu; nahi duen gai, genero, eta estiloan. Andonik eta biok testu horretaz ez dugu ezer ere jakiten, baina 6-7 etenaldi egiteko eskatzen diegu, eta nolabait guri gai, galdera hari-mutur bat proposatzeko, guk bat-batean bertsotan egiteko. Testua musikariar aurretik pasatzen dio; hala Pello Ramirezek nolabait saio bakoitzerako soinu-banda bat sortzen du. Ideia literatura, musika eta bat-bateko bertsoen bidez idazlearen errelato zentral hori janzte, beste prespektiba batzuetatik begiratzea da.

—**Eta Kafkari erreferentzia hori?**

—Asko gustatzen zaidan istorioa da, Harkaitz Canok jasota dauka *Neguko Zirkua* liburuan, eta kontatzen du: Franz Kafkak beti aulki berean eserita idazten zuela, aulki horrek bizkar aldean koska bat zeukala. Aulkia apurtu eta herriko arotzari eraman zion berdina egiteko esanez. Arotzak aulki berdin-berdina egin zion, baina bizkarreko koska leunduta. Eta Kafka joan zitzaion esanez aulki horrek ez ziola ezertarako balio, beretzat inportantea koska hori zelako: deserosotasuna ezinbestekoa zitzaiola sortzeko. Esaten zuenez, sentitu behar zuelako nolabait pertsona bat bizkarrean zuela pisto-

la batekin, nahiz eta jakin pistola ez zegoela kargatuta; baina, tentsio horretan mantentzen zuela. Guk ere sinesten dugu tentsio hori mesedegarri datekeela sortzeko. Denok gaude gure eremu naturaletik pixka bat irtenda; deserotasun izan daitekeen hori sormenerako akuilu bihurtu nahi izan dugu.

—**Bertsolaritzari helduz, Bertso Eguna “Generoa” gogoeta-ardatz izan du. Ez ete**

“Guk ere deserotasun izan daitekeen hori sormenerako akuilu bihurtu nahi izan dugu”

da egun bakarrean lotuko? Utziko ete du arrastoa eguneroko plazan?

—Ez, jakina ezetz; aldrebes da bidea, hau da: Bertso Egunean hau egin zen eguneroko plazetan mugimentu bat dagoelako. Egia da, askorentzat berria dela, edo lehenbiziko aldiz entzun zituela gai horiek horrela izendatuta. Bakoitzaren buru-gorputzetan galdera, ezinego edo krak txiki bat sortu bazuen, bada-kigulako beste edozein plazak baino oihartzun handiagoa duela, bada ondo; baina, hau aspalditik dator. Maialen Lujanbiok 2005ean eman zuen lehenengo aldiz bertsolari buruzko hitzaldi bat genero prespektibatik. Geroztik, bai Maialenek berak, baita gero Ainhua Agirreazaldegik eta biok ere “Bertsolaritza, begirada feminista bat” hitzaldia askotan, eman dugu; eta bertso-eskola feminista tailerra jarri dugu martxan,

“Zenbateko kontentzio eta errepresioa bizi izan duten aurreko emakumeek; nolako gezurra gaur egungokook”

bertsolariaren, oro har, kulturaren eta eszenaren gainera begirada feminista garatzen hasteko. Bertso Eguneko arrakasta nagusia, niretzat, hori prestatzen, lantzen edo bertsotan 49 emakume jardun izana da; orain 10 urte ezinezkoa zen! Beraz, badago mugimendu bat, badago jende gero eta gehiago emakumeak eta gizonak neutroak ez garela ikusi

dutenak, eraikita gaudela; eta bakoitzak duen eraikuntzak, era batera edo bestera, baldintzatzen duela, are gehiago jende aurrean ari bazara.

—**Halere, berbaldietako datua: bertsolari-tzan emakumezkoak %15 dira.**

—Bertsolaritzan, literaturan, eta oro har, tradizionalki gizonenak izan diren esparru askotan. Askotan konturatzen gara pertzep-

zioa eta errealitatea ez datozela bat. Askotan entzuten dugu “*pila bat zerate!*”, ez da egia, baina jendeak pertzepzio hori du. Konturatzen gara, oraindik ere, maskulinoa unitbertsala dela, eta femeninoa markatua dela; adib.: Berriako kultura sailean lau egunetan segidan lau gizonen idazle elkarrizketatzen badituzte, hori normaltzat jotzen da; baina, lau egunetan segidan lau emakumezko idazle elkarrizketatuz gero, galdetzen dizute: “*zer ari zarete emakumeen ziklo bat egiten?*”. Argian elkarrizketatzaile egon nintzenean, elkarrizketatuen sexuaren arabera berdintasun bat lortzen saiatu nintzen, ez nuen lortu, emakumezkoak %36 edo izan ziren, eta hala ere, kalean, eta ez behin ez bitan, ea emakumezkoak elkarrizketatzeko kontratatu ninduten galdetu zidaten!

—**Gaiei dagokionez, bertsolari-tzan badira**

kontu deigarri bi: oraindik deserosoa-edo den emakumea eta sexuaren gaia, eta emakumezko bertsolariiek grazia, umorea era-biltzeko ez dutela hainbesteko jariorik, sakontasunerako joera duzuela...

—Horrek tranpa asko dauzka. Emakumezko kooi ukatu zaizkigu sexua eta umorea plazererako bide bezala. Hainbat bidetatik sine-

tsarazi digute ez dugula umorerako senik. Umorea ikasi egiten da, barre egiten ikasi egiten da. Eta barre egiten dugu konpartitzen ditugun erreferenteei buruz, uste konpartituak direnean. Emakumeak historikoki umore-hartzaile izan dira, umore-sortzaile baino; gainera, gizonenak umore-hartzaile, ikasi dugu gizonenak egiten duten umore horri eta erreferenteei nola eta zenbat

“Idazle bakoitzak jakin behar du dena entzun (...), baina baita libreki idazten jarraitzen ere”

barre egin. Virginia Imaz clown-ak esaten du: publikoa emakumezko soilik osatuta dagoenean askoz ere gehiago eta ozenago barre egiten dutela. Baina, kalean ikusi beretik ez zenbat emakume egiten duten barre ahoa eskuz estalita! Gero, emakumezkoon bizitzetako hainbat parte ez dira graziosotzat jotzen. Imazek azaltzen du: zerbaitek umoretsua izateko tragikoa izan behar du; zenbat eta garrantzi handiagoa izan, or-

duan eta grazia handiagoa, erreferenteak garrantzi handia, horren distortzioak barregura handiagoa... Orduan, emakumezkoen bizitza ez badira aintzat hartzen, ez badute pisurik, behintzat eremu publikoan, horri buruzko umorerak ez du funtzionatzen. Guztiaren atzean dagoen tranpa: betikoa, gure belaundikooi sinetsarazi digutela berdintasunean bizi garela, badaudela “*pulitzeko*

izkinatxuak: tratu txarrak, atzerriko emakumeei egindakoak, ablazioa... horiek basatiak dira, gugandik urrun egiten direnak...”. Ez da ikusten subordinazio hau egunerokotasunean eta arazo estrukturala bezala. Abiatzen gara berdintasunaren tranpatik; “*zortziko txikian egizu umorea...*” eta egin behar dugu leku beretik abiatuko bagina bezala! Ez gaude berdinean enpoderatuta, jendeak gungandik ez du berdina espero... Ez bada emaku-

me bat kanon estetikoetatik dibergentea dena. Fijitzen bazara emakumezko umorista gehienak estetiko dibergenteak dira, edo lodiak, edo herrenak... Imazek dio: emakumezkoak hezi gaituzte arduratsua izateko eta seduzitzeko, eder agertzeko; hala agertuz eta umorea egin, ezinezkoa da. Ezin duzulako besteak zutaz zer pentsatuko duten, edo zure irudia distortsionatuko den pendiente egon. Sexuarena ere argi dago: nolako tabua izan den orain gutxira arte, zenbaterainoko kontentzioa eta errepresioa bizi izan duten gure aurreko emakumeek, nolako gezurra bizi dugun gaur egungo pentsatuz gu jaiola gure horrekiko mundu libre batean! Eta oraindik zenbat konplexu eta zailtasun dauzkagun sexualitateaz hitz egiteko! Eta zenbat behar! Isilik egon behar izan dutelako urte pila batean. Zaruazko bertso-eskola feministako partaide batek esan zigun: “*nik esateko presa daukat*”, 68 urte dituela eta gauza pila bat esateko! Beraz, ikusten ditut, batzuk oraindik isilik eta onartuta hori dela haien lekua; eta beste batzuk urgentzia horrekin... ○

Irakurzaleen taldeak

—**Irakurle-taldetan dinamizatzaile zabil-tza; zer profileko jendea batzen da?**

—Getaria, Zumaia eta Lasarteko taldeak gidatzen ditut; idazle bezala, beste batzuetara ere joaten naiz. Bakoitza mundu bat da; baina badaude hainbat ezaugarri: ia denetan emakumezkoak gehiago dira; gazteak gutxi, nik uste adin-kontua ere badela: bakarka ez dira ausartzen apuntatzera; 30-65 edo 70 urte bitarteko jendea egoten da, denetarik: irakasleak, asko irakurri dutenak, gazteleaz asko irakurri baina euskaraz ez, eta euskarazko literatura ezagutzeko-eta hurbildu direnak, irakurtzea gustatu baina konstantzia mantentzea kostatzen zaienak, zaletasun hori daukan ingurua ez dutenak, horientzat taldeok arnagune dira..

—**Betetzen dute irakurzaletasuna bultzatzeko helburua? Ala irlak ete dira?**

—Nik uste baietz; baina, jakina, irlatxoak direla. Irakurzaletasuna ez da bultzatzen den afizio bat. Esango nuke, ezta strategi-

koki ere ez zaiela komeni jendea irakurzaletara izatea... Gero, jarrera aktiboa eskatzen du; eta irakurri duzun horri buruz beste batzuekin hitz egiteko baduzu, arretaz egiten duzu, apunteak hartzen dituzte, azpimarratu... Beste helburuetako-edo bat da irakurtzen ikasi egiten dela; eta taldean askoz ere hobeto irakurtzen dela bakarka baino; liburu beretik bakoitzak gauza diferenteak jasotzen ditu, eta besteen ikuspengietatik pila bat ikasten duzu. Genero diferenteetako liburuak programatzen saiatzen naiz. Bada sekula poesiarik edo ipuinik irakurri ez duena; eta gero, konturatzen zara, saiatu ahala, jendea bere gustua zabaltzen doakiola, edo kriterioa zorrotzen. Taldeon funtzioak dira: batetik, irakurzaleak biltzea eta alkar ezagutzeko; bestetik, hobeto irakurtzen ikastea; gero, autore diferenteak ezagutzeko, nobedadeak edo irakurri gabe pasatu zitzaizgunak eta baita “klasikoak” ere, hain zaharrak ez izan arren; itzulpenak

e.a. Niretzat plazera dira!

—**Idazle legez ere ikasten du?**

—Bai, pila bat. Oso berrisua naiz, eta lehengo andreak esan moduan, nik uste idazleok ere esateko presa dugula; nolabait bi urte pasa dituzulako ixilik liburuak idazten, zure buruari bakarrik inporta zaiola, eta konpartitzeko gogoz egoten gara. Konturatu nintzen irakurleek ere oso gogoko dutela hitz egin, galdetu, konpartitzea... Eta oso harrituta lotu naiz zer serio hartzen duten literatura! Zenbat haserretzen diren liburuak nahi zutena eman ez dienean! Irakurtzea ekintza aktiboa da, zure denbora, ahalegina eskaintzen dizkiozu; orduan idazleei, horren truke asko eskatzen diote. Egia da, denetariko iritziak jasotzen dituzula; eta oso interesantea da beti. Idazleak jakin behar du dena entzuten, baina baita libreki idazten jarraitzen ere. Irakurle batzuei liburu bat gehiago gustatzeak ez du esan nahi hobea denik, edo hori egin behar duzunik.



Egunerokoak gurean

Orain dela hamar urte Erandio bizileku duen Eduardo Caminoren (Camagüey, Kuba) begi zorrotzak Uribe Kostako paisaiak bizi dituzten herritarrengan pausatu dira.

Euren ogibidean, euren aisialdian, beharrezko zein zaletasunen batean harrapatu dituzte argazkilariak oraingoan uribe kostarrak; egunerokotasunaren lagin txikitxo bat duzue orrialdeotan.

Argazkiak: **Eduardo Camino**





Sexu-askapenerako gazte-mugimendua: sortze-prozesua

Uribe Kostako gazteak bidea egiten, sexu-askapena helburu

Sexu-askapenerako gazte-mugimendua sortzeko prozesuan dabilta Hego Euskal Herrian, eta Uribe Kostako hainbat gazte ere parte hartzen dabilta. Oinarri ideologikoak zehaztu dituzte, uda orduko aurkeztu gura dute.

Hego Euskal Herrian sexu-askapenerako gazte mugimendu “*indartsua*” sortu gura dute, “*kalea baldintzatzeko gai izango den mugimendurik ez dagoelako gaur egun*”. Eskualdeka antolatu dira, asanbladatan, eta Uribe Kostan hainbat lagun parte hartzen ari da. Horiekaz elkartu gara eta eratze-prozesuaren nondik norakoak azaldu dizkigute.

Diotenez, sexu-askapenerako mugimendua irla txikiz osatutako ozeanoa zen,



Sortze-prozesuaren ikurra

norabiderik barik lan egiten zuena. Iazko mendeko 80ko hamarkadan mugimenduaren haustura traumatikoa gertatu eta Queer-teoria sortu zen: “*Egoera hartatik*

gatoz”. Eta zer sortuko dute orain? Bada, “*partehartzaiilek erabakitzen dutena, beren nahi eta beharren arabera*”. Beharrak eroan ei zituen mugimendua sortzera: duela urte eta erdi abiatu zuten hausnarketa oinarri ideologikoak zehazteko.

Prozesu hori norbanakoek bultzatu

Hego Euskal Herriko mugimendua uda orduko aurkeztuko dute jendaurrean

zuten, horietako batzuk talde desberdinetan parte hartutakoak. Ez daukate koordinazio-talde finkorik eta asanbladatan elkartzen dira. Hiru nazio-asanblada egin dituzte eta gero bakoitzak eztabaidatu du bere eskualdean: asanbladak izango dira prozesuaren motore eta gidari.



Uribe Kostako asanbladako partaideak

Bizkaian, badaude asanbladak Uribe Kostan, Ezkerraldean, Bilbon eta Duran gon, eta aurrerantzean gehiago sortzea espero dute. Orain proposamen politikoa osatu behar dute, helburuak markatu, eta barne-egituraketa eta mugimenduaren izena erabaki. Uda baino lehen aurkeztuko dute prozesuaren emaitza jendaurrean.

Oinarri ideologikoak

Egoera politikoa eta ekonomikoa aztertzean, jabetu ziren “*zer gertatzen ari zen ultra-eskuineko mugimenduak kapitalismoaren krisiaren testuinguruan*”. Urte eta erdiren bueltan bost txosten osatu dituzte.

Azaldu dutenez, Queer-teoria albortu behar zuten ez zetoerrelako bat eurekaz,

baina ez Queer-praktikak: “*Jendeak uste du Queer hori gay eta lesbianen sinonimoa dela, baina ez dauka zerikusirik*”. Diotenez, gay, lesbiana, transexual, trans-genero edota inter-genero “*etiketa zurrun horien barruan*” kokatu pertsonetako batzuk Queer-teoriaren muga diskurtsiboen barruan ere sar daitezke; baina eurek ez dute proposatzen “*bizirauteko edo existitzeko leku egonkor bat: ezartzen diguten arauaren aurkako jarrera da gurea*”. Horrela, mugimendua ez da pertsonen iden-

Sistemak ezarri arauakaz hausteko borroka garatuko dute gazteek

titateen batuketa kuantitatiboa, baizik eta “*inposatzen diguten normalkuntzaren kontrako jarrera kualitatiboa*”. Muga horiekaz gatazka sortzeko asmoa daukate: jendar-tearen, sexualitatearen, generoaren zein legearen muga horiekaz.

Euren aburuz, sistemak pertsona manipulagarriak sortzen ditu, hain zuzen ere, sistemarekiko asimilagarriak izan daitezten eta sistema bera mantentzeko. Gazteek horregaz apurtu gura dute. ○

Mikel Uriarte eta Ekaitz Herrero > Uribe Kostako asanbladako partaideak

“Argi dugu sistema hetero-patriarkalak kalte egiten digula eta horren aurka antolatu beharra dagoela”

—Zeren aldeko edo kontrako borroka planteatzen duzue?

—Heterosexualitatea ulertzen dugu *heteronorma* baten moduan. Argitu behar da etsaia ez dela heterosexualitatea sexu-hautu bezala, baizik eta horretatik ateratzen den araua. Hark pertsonak hezitzen ditu modu oso zurrunean, sistemak manipula ahal ditzan, sistema bere horretan mantendu ahal izateko. Planteatzen dugu asimilazio horren kontrako borroka.

Ez bakarrik sexualitate eta genero kontuan: mundu honen antolaketa kapitalista eta heterosexualaren kontra gaude non elkargunea da gurea. Sexu-askapenerako mugimendu erreformistak hartzen ez dituen borroka askotan sartzen gara: borroka transbertsala da.

—Mugimendu erreformista?

—Bi euritako daude mugimendu honetan. Handiena da mugimendu instituzional erreformista, eta bilatzen du ere-

du heterosexualaren asimilazioa. Horren aurrean, asimilazio horrekin hautsi nahi duen mugimendua dago. Adibidez, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren ostean, konformatu dira. Jendarte eredu heterosexualak asimilatu du mugimendua, bestelako orientazio sexuala daukan jendea eredu horretara hurbilduz: ezkon zaitezke, adoptatu, normalak gara eta normaltasun horretan sartu gara. Egiten dira manifestazioak Ekainaren

28an, baina besterik ez: desaktibazio handia dago. Badirudi homosexualen eskubideak errespetatzen direla, baina Errusian gertatzen ari dena begiratu besterik ez dago: jendea hiltzen ari dira inpunitate osoz.

—Zergatik da garrantzitsua gazte-mailan antolatzea? Gazteek asimilatu dute sistemaren egituraketa?

—Gainontzeko zapalkuntzez gain, beste bat ere pairatzen dugulako: infantilizazioa. Haren bidez sistemak bilatzen du erabakitze gaitasuna deuseztatzea. Sistema baldin badago, horrek esan nahi du gazteek eta gazte ez direnek asimilatuta daukatela, zoritxarrez: asimilatuta ez baleukate, ez legoke sistemarik. Gazteok

mugimendu orokorraren oinarriko zatia izan behar dugu: etorkizunean izango gara edo ez, baina orain bagara, eta orain antolatu behar dugu alkarregaz. Hain zuzen ere, eratze-prozesuaren beste helburu bat da jendea biltzea, zenbat eta gehiago hobeto. Gainera, hau momentu polita da: guztia diseinatzen ari gara gure nahien arabera. Hori ez da askotan gertatzen eta polita da erabakitzea zer nahi dugun. Ez da gaineratik datorren zer edo zer, antolakunde batean sartzean bezala, orduan dena ezarrita egoten da eta. Ez, une honetan gu gara erabakien parte. Eta nahiko mugimendu zabala da: ez bakarrik gay edo lesbianena, praktika heterosexualak dituztenek ere parte har-

tzen dute. Jendea anima dadila, Uribe Kostan asanblada polita daukagu eta.

—Post-pornografiari buruzko solasaldi-eztabaida egin zenuten urtarrean, zelan joan zen?

—Ondo joan zen, 15 bat lagun elkartu ginen: zabalpen handirik bako ekimen berria izateko pozik gaude jendearen erantzunarekin, baita egin genuen eztabaidarekin ere. Izan ere, badaude kontzeptu asko nahiko ezezagunak edo konplexuak, eta horiei buruz ere aritu ginen, teoria praktikara jaitsiz: pentsalarien izenak agian ez ditugu ezagutuko, baina argi dugu sistema hetero-patriarkalak kalte egiten digula eta horren aurka antolatu beharra dagoela. ○



BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Tel: 94 460 70 84
ALGORTA

[zinema]

Mendi-Film jaialdiko lagina Martxoaren 10ean eta 12an izango dira emanaldiak Kultur Leioan



Egun bakoitzeko sarrerak 3 euro balio du; bonuak 5 euro

Bilbon iragan urte amaieran egin zen Nazioarteko Mendi-Film festibalak, han-hemen zinema-zikloak antolatzen ditu; festibalean emondako hamaika lanen laginak hainbat herritan erakutsi asmoz, mendiaz lotura duten kirol eta abenturen gaineko filmak zinema-zikloak antolatuz.

Hala Mendi-Tour izendatzen dituzten eskaintzagaz gozatzeko aukera egongo da Leioan. Horretarako, iragarri dituzte data eta egitaraua. Hitzorduak martxoaren 10erako eta 12rako, astelehena eta eguaztena hurrenez hurren, ipini dituzte, eta emanaldiak Kultur Leioako auditoriumean izango dira, kultur etxeak adierazitakoaren arabera iluntzeko 20:00etan.

Egitarauari dagokionez, Mendi-Film jaialdiko lagin interesgarria egongo da ikusgai; ondoko hauek dira eskainiko dituzten lanak: lehenengo egunean, *Cascada* lan laburra (Anson Fogel & Skip Armstrong, AEB 2013; euskarazko

eta gaztelarazko azpitoluakaz), ordu erdiko *Petit Bus Rouge* (Sébastien Montaz-Rosset, Frantzia 2013; gaztelarazko azpitoluakaz) eta *Cerro Torre* (Thomy Dirnhof, Austria 2013; gaztelarazko azpitoluakaz); bigarren egunean *North of the Sun* (Inge Wegge eta Jorn Nyseth Ranum, Norvegia 2012; gaztelarazko

«Mendi Tour-ek mendi, kirol eta abenturako sei film eskainiko ditu»

azpitoluakaz), *High Tension* (Zachary Barr, Josh Lowell, Peter Mortimer eta Nicholas Rosen, AEB 2013; euskarazko eta gaztelarazko azpitoluakaz), eta *Crossing the Ice* (Justin Jones, Australia 2012; euskarazko eta gaztelarazko azpitoluakaz).

Egun bakoitzeko sarrerak 3 euroan egongo dira salgai, eta egun bietarako bonuak 5 euro balio du. ○

Info+: www.mendifestival.com

Festibala Gernikan

Martxoaren 9tik 16ra hamaika estilotako eta gunetako eskaintza osatu du **Lekuek**



Eskualdeko Dead Bronco taldeak zuzeneko eskainiko du Gernikako Lekuek jaialdian

Gernikako musikari eta musikazaleek prestatutako festibaltzat aurkeztu dute Lekuek. Antolatzaileen esanetan, *«Sarri gure kabuz egin ohi duguna astebeteko programazioan batu dugu. Hainbat espazio, estilo, egiteko modu batzen dituen festibala da: leku edo eragile bakoitzak erabakitzen du zein talde ekarriko duen, zelan antolatuko duen. Musika eta kulturaren inguruko eztabaida, ideia-trukea eta harreman-sare berriak sortu gura ditu»*. Hala, berbalde, mahainguru, dokumental eta ikastaroak eskainiko dituzte, besteak beste: euskal kulturaren zentro eta periferien inguruko mahaingurua, mu-

sika-emanaldiak antolatzen ikasteko tailerra, musika-jaialdiak feminismoaren ikuspuntutik lantzeko tailerra, ghetto musikaren hitzaldia. Horrez gainera, 25 kontzertu baino gehiago iragarri dituzte, esaterako talde hauena: Esne Beltza, Dead Bronco, Iria, Gari, Audience, El_Txef_A, Malcolm Holcombe, Dawn of the Maya, Las Tea Party DJ's, Fiakun Team, Hyde Abbey, Undo, Thirteen Bled Promises eta Bullets of Misery. 20 euroko bonua dago salgai, baina aforo mugatua dutenez txarteldegian, bonua erakutsiz, sarrera jaso beharko duzu. ○

Info+: www.gernikakolekuek.com

diskoak

Tree-Sustrai barik
Nevermind
Hotsak



Hirugarren lana du Kurt Cobain-en "Nevermind People" abestitik izena hartu duen taldeak. Ezohiko instrumentazio eta formazioagaz, Hasier Oleaga (bateria) eta Jorge Abadias (gitarra) sortzaileei Julien Izarra batzen zaiela zuzeneko emanaldietan, hirukotearen estiloa jazzaren eta musika garaikidearen ozeano zabaletan barnatzen da.

Te-Uhinak
D. Donnelly eta B. Fuentes
Hotsak



Beñat Fuentesek eta Drendan Donnellyk, Txinan bizi diren mungiarra eta irlandarra hurrenez hurren, *Te-Uhinak. Music Inspired by China Field Recordings* (Txinan Landa-grabazioek Inspiratutako Musika) lana kalean dute. Azpitoluak azaltzen duten legez, *«etnia ezberdinen kantu, instrumentu, giroak grabatu dituzte, gero, sorkuntza propioak onduz»*

Los mejores de los...
Txapel-punk
Baga-Biga



15. urtemuga betetzear dutela, Lekeitioko taldeak seigarren lana prest du: *Los mejores de los peores*. Rock eta punk doinu zein letra itsaskor eta kutsakorraz osatutako hamabost kanta barri batu dituzte diskoan. Ia hiru urteko isilunearen ostean, lan barria eta horren aurkezpen-bira abiatzear dira; horregaz gozatzeko aukera: martxoaren 20an, Bilboko Kafe Antzokian.

diskoa > we are standard

The Clash talde entzutetsuari gorazarre eginez, Getxoko We are Standard taldeak Ingalaterrako punk-rock taldearen kantuen bertsio-diskoa plazaratu du. Hurrengo bederatzi abestiek osatzen dute *We Are Standard plays The Clash* lana: "London calling", "Clampdown", "Police on my back", "Magnificent seven", "Revolution rock", "Lost in the supermarket", "Hateful", "Should I stay or should I go" eta "Rock the casbah". 2012 urte akabuan Bilboko Kafe Antzokian eskainitako kontzertua du oinarrian disko barriak, izan ere orduan The Clash-eko omentzeko emanaldia eskaini baitzuten. Hainbat zuzeneko iragarri dituzte, besteak beste: martxoaren 7an Bilbao BBK Live jaialdiaren aurkezpen ofiziala girotuko du banda getxoztarrak, Bilboko Backstage aretoan.

Info+: www.wearestandard.net

jaialdia > mojo workin'

Egian (Donostia) dagoen Gaztesena-aretoan egingo den Mojo Workin' jaialdiaren bosgarren ekitaldiak R&B doinu interesgarri osatu du barriro ere egitaraua. 50. eta 60. hamarkadetakoa musika baltzaz gozatzear helburu, aurten Gure Gauza R&B asteburua azpi-izenburuagaz, martxoaren 14rako eta 15erako jarri dituzte hitzorduak, eta ondorengoak dira kartelburu-kontzertuak: lehenengo egunean, Billy Boy Arnold (Chicago, AEB) eta Sugar Pie DeSanto (San Francisco, AEB); bigarrenean, Baby Washington (New York, AEB) eta Owen Gray (Jamaika).

Info+: www.guregauza.com



Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Herri-ondarea batzen

Aratusteak Bizkaian liburua eta DVDa aurkeztu du **Labayru Ikastegiak**

Akaitze Kamiruaga urduliztarrak, Igone Etxebarriak eta Adolfo Arejitak osatu dute Labayru Ikastegiak aurkeztu barri duen *Aratusteak Bizkaian* lana. Azaldu dutenez, “lan bakarria da baina euskarri bikotxean aurkeztua, liburua eta DVDa, Bizkaian Aratuste-zikloak dituan ezaugarriak, izendatzeko moduak, ospatzeko erak eta ohiturak jasotzen dituan”.

Herri-Ondarea bilduma osatzerator dator lana; oro har, aratusteak, inauteriak edo karnabalak gaia jorratzen duen monografia da, “baita Bizkaian herririk herri garaian dauden tradizioak”. Izan ere, lan hori atondu bitartean, arduradunek eskaintako zenbait berbalditan jakinarazi zuten, “besteren artean, eraldatutako ondarea da bete-betean; (...) Aurreko gizal-

«Liburuan azalpen eta argazkiak; DVDan ordu erdiko dokumentala»

dian jai horreek galduz joan ziran edo diktaturaren debekua jaso eben. Garai hori igaro eta gero, ohitura horretariko asko dantza-taldeei esker berreskuratu dira”. Lanean zehazten dutenez, kontuan hartu beharrekoa da gehienentzat “aratusteak ez direla jai egun bakarria, ziklo bat dira. Ziklo horretan beste jai egun asko sartzen dira”.

liburuak



Trenen abiadura
Luis Garde
Pamiela

Poema narratibo luze bik osatzen dute Iruñeko idazlearen seigarren poesia-lana; trenak dituztela bitartekari. Paul Valeryren “Gizakiak gaur ez zukeen poesia asma-tuko” esanaz gogoeta da bata; Veneziara egindako amodio-desamodioranzko bidaia du ardatz besteak.



Herri-Ondarea bildumako lana da

aurretik San Anton, Kandelario, San Blas, Santa Ageda; aratusteen barruan Basaratos-te edo Txixi-burduntzi, Eguen Zuri eta karnabal-egunak”; noiz hasten diren zehaztea ez da erraza, baina “argi dagoana amaiera da: Hausterre edo Hauts-egunean, Garizumea hasten danean”, gaur egungo erabakiak bestelakoak izan badaitezke ere.

Lanean besteak beste, ondorengo barri emoten dute: Mundakan Atorrak eta Lamiak; Markinan Hartza, antzara-jokoa eta zahagi-dantza; Lekeition Estudiantina; Ermuan oilar-jokoa eta Hartza; Gernikan Marroak; Durangon Surrandiak; Trapagaranen Carrascolendas e.a. o




Piztiak hil behar du
Nicholas Blake
Igelga

Nicholas Blake ezizenez, Cecil Day-Lewis (1904-1972) ingeles-irlandar poetaren misteriozko polizia-istorioetako bat duzu Estibaliz Lizasok itzulitako nobela hau; zazpi urteko semea hil dioten polizia-eleberririk idazlea du protagonista eta hala hasten da: “Gizon bat hiltzera noa...”

[kirola]

Mikel Uribe > jiu jitsu brasildar borrokalaria

“Ikasitako guztia gimnasioan dagoen giroari esker izan da, elkarri laguntzen diogulako”



Mikel Uribek Cleyton Bastosegaz entrenatzen du, Gracie Juquinha Jiu Jitsu taldekoa

Mikel Uribe getxoztarrak jiu jitsu brasildarra borroka artearen Europako txapelketan urrezko domina irabazi du. Horren ondorioz, bere entrenatzailea den Cleyton Bastosek gerriko urdina eman dio. Hala, getxoztarrak gogor jardun beharko du maila berri horretan orain arte lortutakoa mantendu ahal izateko.

—Lisboan egindako Europako txapelketan urrezko domina irabazi zenuen, eta horrelakorik lortu duen euskaldun bakarra zara, zelan hartu duzu lorpen hori?

—Momentuan nahiko natural. Borrokak irabazi nituen, eta txapelketaz asko gozatu nuen. Baina nire kideak, nire jendea eta familia ikusi nituenean emozio handia sentitu nuen.

—Zein kategoriatan aritu zinen?

—Nagusien eta gerriko zurien superpistuen; edo bestela esanda, 94 eta 100 kilo artekoan.

—Zelakoa izan zen esperientzia?

—Lehenengo borrokan oso urduri nengoen. Baina zortea izan nuen; aurkaria ito

nuen 30 segundoren buruan eta amore eman zuen. Bigarrenean ezin nuen aurkaria irauli, eta azkenean hirukiaren teknika-gaz ito nuen. Hirugarrenean aurkaria ni baino indartsuagoa zen eta ezin nuen irauli, baina azkenean besotik heldu eta hura trokatu nion. Finalean, aurkariak ez zuen amorerik eman, baina puntuengatik irabazi nuen, 15 eta 5.

«Titulua ez dut uste nirea bakarrik denik, talde osoarena da»

—Aurretik txapelketaren batean jardun duzu edo lehiatu zara?

—Bai, hiru tokiko-txapelketatan aritu naiz, eta horietan guztietan lehenengo postua lortu nuen.

—Orain gerriko urdina duzu, beraz beste maila batean aritzea egokitzen zaizu.

—Bai, orain aurkariak esperientzia handiagoa izango dute. Maila berrira egokitu beharko dut, gogor entrenatuz eta aurkariak aritu beharko dut ea irabazten jarraitzen dudana edo zer... o

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kizoi moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Alex Idiondo > cavagilea

“Lehen zapalketako muztioa funtsezkoa da: ardo on barik ez dago cava onik”

Katalunian bizi da Alex Idiondo getxoztarra: Penedes aldera joan zen duela 12 urte cava egiteko asmoz. Urtetako lanaren ostean, 2009an lortu zuen bere ardoa merkaturatzea. Gaur egun cava desberdinak egiten ditu eta horietako bi topa daitezke gure inguruan: Gora eta Ainhoa cavak.

—Noiz eta zergatik erabaki zenuen Kataluniara joatea eta cava egitea?


—Edari-sektorean lan egiten nuen eta hasi ginen garagardo bereziak inportatzen eta upeltegiakaz lan egiten. Horrela hasi nintzen ezagutzen ardoaren ekoizpena. Bestalde, emaztea ezagutu nuen: kataluniarra da eta nire sektore berean lan egiten zuen. Bilbon bizi ginen, baina maiz gentozen Kataluniara oportetan eta familia bisitatzeraz. Azkenean, bertara etortzea eta upeltegi txiki bat zabaltzea erabaki genuen: pentsatu genuen Katalunian egokiena cava egitea zela. 2002an iritsi ginen eta 2009an lortu genuen lehen cava merkaturatzea: cavaren mundua nahiko itxia da eta antzinatik ardoa eta cava egiten duten familiek ekoizten dute. Baina proiektuagaz aurrera egitea lortu genuen.

—Penedes aldera joan beharra dago cava ona egiteko?

—Bai, baina klima eta luraren kontuagatik. Hainbat tokitan egiten da cava, baina kalitatezkoa eskualde honetan dago.

—Gora eta Ainhoa cavak egiten dituzue?

—Horiek dira Euskal Herrian saltzen ditugunak, baina beste cava batzuk ere egiten ditugu Katalunian eta atzerrian saltzeko. Gainera, saiakuntzak ere egiten ditugu; barbarako, orain cava bat egiten dugu



Info+: www.idiondoimolina.com

marrubi zaporeagaz. Hau da: batetik, cava tradizionala egiten dugu eta, bestetik, barrikuntza. Mundu oso zaila da, tradizioko familia-ekoizleak dira eta guk tradizioa eta barrikuntza uztartu gura ditugu.

—Zer daukate Gorak eta Ainhoak?

—Gora tradizionala da, betidanik egin den modukoa: xarel, macabeo eta parella-

“Hainbat lekutan egiten da cava, baina kalitatezkoa Penedes eskualdean dago; guk tradizioa eta barrikuntza buztartu gura ditugu”

da mahats-motakaz egiten da. Ainhoa, barriz, autore-cava izendatzen diren motakoa da: gehiena xarel mahatsa da, char-donnay apur batez; ontze luzeko cava da. Gora freskoa da, poteoan edatekoa.

—Poteoan txertatu gura duzu cava?

—Horretan gabilta. Gasteizen nahiko zabaldua daukagu, Donostian iaz zabal-

tzen hasi ginen eta ondo hartu dute, Bizkaian ez hainbeste. Gasteizko 50 bat tabernatan har daiteke Gora cava-potea.

—Cava onak zelakoa behar du?

—Naturala. Funtsezkoa da ardo ona aukeratzea, mahatsaren lehen zapalketatik ateratako muztioa: zukua bakarrik hartzen dugu, azalik ez. Legamiak ere ona

behar du eta prozesua ondokoa da: muztioa eta legamia nahastu, eta azukrea botatzen zaio; legamiaren mikro-organismoek azukrea jan, eta CO2 burbuilak eta alkohola botatzen dute. Tradizionalan Brut Nature motakoa besterik ez dugu egiten: espedizio-likorerik bakoa; ardo onik barik ez duzu lortuko cava onik. ○

Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikoimitologia.com webgunera jo.

Zezengorri

Zezengorri batzuetan, Behigorria besteetan, hainbat kontakizunetan Mariri laguntzen agertzen den pertsonaia mitologikoa da. Haren kondairak leku askotan kontatzen dira, Euskal Herriko punta batetik bestera. Diotenez, jainkosa bizi zen zuloetan bizi ziren, koba eta leizeetan; haien funtzioa leku horien zaindari izatea besterik ez zen.


Leku horietan erromatarren garaiko txanponak topatu dituzte, haitzuloko jentilen babesa eskuratzeko itxaropenez hara jaurtitakoak. Hala ere, gainazalean ere agertzen zela esaten da, bere gaineko jabetza eskuratu gura duten pertsonak bere etxeraino erakarriz, han arrastorik utzi gabe desagertzeko. Beste batzuen ustez, Zezengorriren buztana bi eskurekin hartuz, Mari jainkosarengana bidaiatzeko aukera ematen zuen. Frogatu duzu inoiz?

Kondaira

Gure herrialdean bereziki ezaguna den kirolak badago, hori, zalantza barik, pilota da. Juanis, Bargotako apaiza, jokatzaren partidak ikusten zaletu zen, baina aisialdi uneak ere aprobetxatzen zituen astean hirutan edo lautan berak ere jokatzeko. Egun batean, ordea, frontoira zihoala, jolasteko pilotarik ez zuela jabetu zen. Orduan, Bargota oso txikia zenez eta han pilota bat eskuratzeko modurik ez zuenez, herriko mutiko bati Vianaraino joateko agindu zion, hain zuzen ere bi orduko bidea egin zezala, pilota bat eros ziezaión.

—Bai noski joango naiz, On Juanis, esan zion “Txape” zeritzon mutikoak baina kontuan har beza berorrek denbora dezente beharko dudala itzultzeko, distantzia luzea da-eta.

—Eta Juanisek zera esan zion:



Zezengorri. Ilustrazioa: Daniel Castello

—Joan zaitetz, ez arduratu distantziarekin, izan ere, laster itzuliko zarela bermatzen dizut.

Mandataria herritik irten zen eta, bere erritmora, oinez. Bat-batean, ufa indartsuak entzun zituen bere atzean. Burua

«Zezengorriren buztana esku biekin hartuz, Marirenganaino bidaiatzeko aukera ei zegoen»

itzuli, eta zezen gorri itzel bat ikusi zuen, korrika batean gainera zetorkiona.

Animalia eskerga hura ikusita beldurturik, Txape korrika hasi zen inoiz korri egin ez zuen bezala. Aldian behin, lursailak horretarako aukerarik ematen zionean, burua bueltatzen zuen zezena bere atzetik

korrika zuela egiaztatzeko, une oro distantzia berera. Hori ikusita, hortzak estutu eta korrikaldiarekin jarraitzen zuen. Hala, unatuta eta hatsanka, Vianara iritsi zen. Han, kaleetan barrena sartu bezain laster, zezena desagertu egin zela egiaztatu zuen.

Apur bat osatu ostean, bi pilotak erosi zituen eta, iturriko urari tragoxka luze bat egin ondoren, itzultzeko bideari ekin zion. Baina, berriro ere, behin bidean, zezen ikaragarri hura agertu zen, eta, ondorioz, Bargota bertaraino atsedetik hartu gabe joan behar izan zuen zaldi baten pare. Izerdi patsetan iritsi zenean, apaizari pilotak entregatu zizkion. Hark, algara artean, eta Txapek gertaturikoa kontatu baino lehen, zera esan zion:

—Ikusten nola bidea ez zen hain luzea... ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar
Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE
Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia
Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK ENKARGUZ
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA



Hanburesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak
SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

Zure publia hemen agertzea gura baduzu
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Zure publia hemen agertzea gura baduzu
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



GOSARIAK PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Izokinaren freskotasuna izokina eta aliolia elkarregaz konbinatuz



Izokina hiru egun lehenago marinatu behar da

Erandiora egingo dugu salto oraingoan, Akarlanda parkean aurki dezakegun Txakoli Motaganera hain zuzen ere. Leku lasai eta eder honetan denetarik topa dezakegu gosea asetzeko; hala ere, bertan dasta daitezkeen pintxoei erreparatuko diegu: sasoikoak, menuko platerak pintxo bihurtuta... Ale honetarako, izokinagaz eta alioliagaz prestatutako modakua aukeratu dugu.

Horrelako pintxo bat prestatzeko hiru egun lehenago izokina ondo marinatu behar dugu. Horretarako, izokin freskoa hartu, garbitu eta gatzetan ondo estali behar dugu hiru egunez. Ondoren, gatza kenduko diogu, oliba oliotan murgildu eta xerra finetan ebakiko dugu. Alioli saltsa egiteko, berakatz ale bat hartu eta

maionesan sartuko dugu, olio zorrotada batez batera. Hala, dena txikitu eta saltsa eginda izango dugu. Hori dena izanda, pintxoa muntatzen hasiko gara.

Ogia hartuko dugu, xerratan ebagi eta horietako bat hartuko dugu gainontzeko elementuak horren gainean jartzeko. Jarraian, alioli-saltsa ondo igurtziko diogu, horren gainean izokin zatia jarri ahal izateko. Ondoren, berro zati bat hartu eta guztiaren gainean jarriko dugu. Azkenik, oliba baltzak hartu, birrindu eta zati txikiak pintxoaren gainera botako ditugu. Hala, gozoa bezain freskoa den pintxoaz gozatuko dugu. o

Osagaiak: izokina, gatza, oliba-olioa, ogia, maionesa, berakatz, berroa eta oliba baltzak.



JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T. 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T. 460 01 87 48990 GETXO




MONIE JAIA 1 48995 Getxo (BIZKAIA) croissanterie-getxo.blogspot.com 94 460 86 48



JUAN-MARI
Harategia eta txarkuteria
ARTESANA
LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra
Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Ariiluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxerriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

**uk zure
publizitatea
hemen !**

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Atsekabeen aurrean aurpegi on.
Ekaitzaren ostean badator barealdia
eta une oker hau ere igaroko da.
Arazoak, edo konpondu, edo erabat
zapuztu, baina beti gainditzen dira.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Beti uzten duzu mozorroaren
prestaketa azken unerako, baina aurten
fin zabilta. Nabari da aurten lehiaketa
antolatu dutela. Ideia bikaina izan
duzu eta zer edo zer irabaziko duzu.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Etxean, lantokian, lagunartean,
maitasunean... primeran joango zaizu
asteotan! Bizitzako esparru danatan
ederto moldatuko zara eta irribarrea
ezpainetan ibiliko duzu une oro.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Lorutzen hasi dira landareak eta
hostoz beteko dira laster zuhaitzak.
Gustukoen daukazu sasoi iristear
dago eta animatuago ibiliko zara
egunotan, beraz, ondo ibili!

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Datorren asteburuan mendira joango
zara eskiatzen ikastera. Nahiko
traketsa zarenez hamaika bider
jausiko zara, baina lasai egon, elurra
bigun-bigun dago-eta.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Astero moduan amamari bisita egingo
dizu oraingoan ere, berak egindako
pastel eta erroskilla goxoak dastatzeko
asmoz, baina dieta hasi du eta fruta
besterek ez ditu eskainiko.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Urtetan futbol-kiniela egiten eta
azkenean asmatuko dituzu partidien
emaitza danak, zorionak! Pena iragan
astean beste batek ere asmatu izana eta
pilatutako botea irabazki izana...

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Aski da! Ezin duzu mozorrotu beti
gauza beraz, aurten jantzi ziztrin hori
bota eta prestatu barri bat, polita eta
originala. Ideia pila atera dezakezu
internetetik, beraz animatu!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Goizetik gauera lan eta lan ibiliko zara
datozen egunetan, ezertarako denbora
barik: ez gurasoie bisita egiteko, ez
lagunakaz parranda egiteko. Hobe aurrez
oharraraztea, kargu hartu ez diezazuten.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Lehenengoan errugbi partida bat ikusi
zenuen lehenengoz eta azkar zaletu zara,
asteon plana errepikatuko duzu-eta.
Baina zertara zaletu zara: kirolera edo
zelaian sortzen den festa-girora?

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Denbora luzean burua berotu ostean
lortu duzu koadrilako lagunak mendira
erotea egunpasa, txangoa egitera. Ez
ahaztu ardo-zahatoa eta bokatak,
gozoak ipiniko zaizkizu bestela!

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Udabarriko jantzi berriz bete dira
dendetako erakusleihoak eta, ohi legez,
bueltartoa egin duzu jantzi barriak
ikustera. Inork baino lehenago izan gura
dituzu, modak itsututa zaude!



"Zu zara
aldaketa
Klimatikoaaren
arrazoia"

Laura Siles 2011

Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan



Uribe Kostako
aldizkariaren
ekotzpena



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Hutsuneak bete egizuz eragiketa matematiko hauek norabide danetan zentzua eduki dezaten.

	+		=	10
+		-		+
9	-		=	
=		=		=
	+	5	=	16

7	+		=	13
+		-		-
	+	1	=	
=		=		=
12	-		=	

gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Zein da Jentilkobako izakiaren funtzio nagusia?

- Zezen-plazetan sufritzea
- Behiak ernaltzea
- Bere jainkosen bizilekua zaintzea

La Gusana liburudenda SARIA
 Tellagorri plaza, Algorta
 Tf. 944 911 412 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: Baleak

> Irabazlea: **Xabier Uriarte***

*deitu telefonoz: 944 911 337

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA *Zaindu* 
 Osteopatia-Fisioterapia **zaindu**
 Esku Teropio Zentrua
 Osteopatia Fisioterapia
 Doctor Landa 4, SOPELA.
 Tel: 94 602 67 79

> Aurrekoaren erantzuna: Zientzia atala

> Irabazlea: **Libra Sanchez***

*deitu telefonoz: 944 911 337

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 944 911 337 telefonora deitu



KARLA LLANOS ETXABEK UTZITAKO ARGAZKIA

Memorias de Getxo bloga

ZASI ESKOLAKO DANTZARIAK, 1966

Romoko Zasi Eskola dantza-taldeko dantzariak dituzu argazkian; garai hartako prestatzaile Santiago Marin zen. 1966ko Romoko jaietan egindako dantzaldikoa da irudia, abuztuaren 7aren bueltan izango zen, eta eskolan ateratakoa da. Argazkia atera zuten momentuan Markina-Xemeingo, Arretxinagako San Migel dantza egiten zebiltzan. Dantza horretan ezpatak erabiltzen dituzte, momentu oro guztiei eutsi behar diete, eta hala figurak osatzen doaz dantzan; amaitzeko, ezpata-sarea osatzen dute, parrila lako bat eginez, eta horren goian ipinita San Migel jantzita doan dantzaria altxatu behar dute... ○

Ezkerretik eskumara: Serafin Blanco, Javier Uria eta Karla LLanos

DAVID SECO > ziklo-kroseko txirrindulari ohia

“Superheroi baten papera egingo nuke edozein filmetan”

Testua: **Iker Rincon** Argazkia: **David Seco**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Zintzoa eta borrokalaria.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Superheroiak dauden edozeinetan, apur bat ahoberoa naiz, kar-kar.

Badakazu ohitura txarren bat?

Agian zorrotzegia izatea gauzak antolatzeko orduan. Horren ondorioz, askok maniatiko deitzen didate.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?

Duda barik nire emaztea eta alaba, nire bizitzako garrantzitsuenak dira; eta ahal bada telefono bat, kar-kar.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Familiagandik eta lagunengandik urrun bizitzea zaila izango zen niretzat; baita Euskal Herritik urrun egotea ere.

Parrandarik politenak non?

Edozein. Agian toki berrietan eta ezezagunetan nahiago dut, baina garrantzitsuena konpainia da.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Urdaibai, *El Conquis* saioan egindako propaganda guztiaren ondoren zer esan behar dut... kar-kar. Baina egia da ez dugula bizi dugun lekua baloratzen, eta Urdaibai leku pribilegiatua da.

Miresten duzun historiako pertsonaiaren bat?


Nelson Mandela.

Zein hutsegite ez duzu inoiz barkatzen?

Faltsukeria eta zuzena ez izatea. Ez zaizkit gustatzen beti mundu guztiarekin ondo geratzeko aritzen diren pertsonak.

Zerk ematen dizu beldurra?

Ezerk ez, bueno, maite dudan jendeari ezbehar bat gertatzeak. o



Irudien eta hizkien hizkuntzetan oinarrituta, ArgIHizkiak lehiaketa antolatu dugu Uribe Kostan. ArgIHizkiak testu laburren euskarazko literatura-lehiaketa da.

'Fotografia' edo 'argazki' berbek "argiarekin marraztea edo idaztea" dute jatorrizko esangura. Horrenbestez, zuen begiradek argien eta hizkien hizkuntzekin jolastea proposatzen dizuegu.

ARGIHIZKIAK

Argazkietan oinarritutako TESTU LABURREN II. LEHIAKETA

Erakusketa Plentzian

Otsailaren 24tik martxoaren 9ra udaletxean


LABURREAN—David Seco Amundarain (Busturia, 1973) ziklo-kroseko txirrindulari ohia da. Modalitate horretan emaitza onenak lortu dituenetako bat da, eta sei aldiz irabazi izan du Espainiako ziklo-kros txapelketa. 2011n kirol mundua alde batera utzi eta 2012an *El Conquistador del fin del mundo* telebistako lehiaketan parte hartzeraz salto egin zuen, hori irabazi zuelarik. Ondoren, *El Conquis* saioan parte hartu zuen; eta, egun, *El Conquistador del fin del mundo* lehiaketan parte hartzen ari da berriro ere. Oraingoan, talde bateko kapitain lanetan.

Emaiozu euskara

**Familia bidezko
euskararen
jarraipena
bultzatzeko
kanpaina**



Zure seme-alabak euskara osasuntsu eta aberatsean hazi daitezzen, aditu guztiak bat datoz esatean familia dela haurrak behar dituen elikagaiak ondoen eskaintzen dizkion giroa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKARA BIZI



KULTURUA SAIA
Euzkara Biziaren
Departamentua
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Departamento de Política
Lingüística

euskaraz hazi eta bizi dadin

<http://www.getxo.net/euskara>



Getxo
bizi ezazu